


Horra, horra web berria



>>3



>>9

Institutuak D ereduarekiko errespetua eskatu du

Guardia Zibilak ikertutako irakasleei elkartasuna azaldu eta ikerketa bera kritikatu du ikastetxeak

>>7

Aralarko santutegia mendigoizaleen topalekua igandean

Mendizaleen gogoko hitzorduak beste klubetako lagunekin biltzeko balioko die Aralarrera joaten direnei

>>11

Ospa eguneko auzia artxibatu egin du epaileak

Altsasuko alkatea eta herritar bat zeuden inputatuta

>>5



Bertako ikurren aldeko manifestazioa Etxarrin >>8



Larrezabal, estatuko gazta ekologiko onena >>5



Verdi omenduko du Etxarriko abesbatzak >>15

Sakana
optika

Jai zoriontsuak pasa eta urte berri on!

optikasakana@gmail.com
948 563 124
Iortia Plaza 11 · ALTSASU

JIMMY CHOO

SAKANA

Web gune berria du Guaixek

Abenduan 19 urte bete dira Guaixe hilabetekaria lehen aldiz Sakanako etxeetan sartu zela. Txuri beltzeko aldizkaria izatetik egunkari formatuko astekari izatera pasatu zen Guaixe. Hurrengo saltoa paperetik Internetera egindakoa izan zen, 2007an; eta www.guaixe.net izenarekin Sakanako albisteak euskaraz mundu guztira zabaltzen hasi zen. Atzetik etorri ziren sare sozialak.

Denborak eta teknologiak aurrea egin ahala informazioa kontsumitzeko joerak aldatu dira. Gero eta gehiago dira Sakanaz informatzeko www.guaixe.net erabiltzen dutenak. Atariak 35.000 bisitak gaindi-

tu dituzten hilabeteetan. Hau da, egunero 1.000 bisita baino gehiago ditu. Twitter (@guaixe) eta Facebook (guaixestekaria) sare sozialek Sakanako albisteen zabalkundearen zama handia hartu dute.

Aldi berean, herritarrei behar berriak sortu zaizkie. Esaterako, telefonumugikor bidezko informazio kontsumoa. Gauzak horrela, bere Interneteko ataria berritzea erabaki zuen Bierrik fundazioak, Sakanako euskarazko hedabideak kudeatzen dituen erakundeak. Fundazioa jabetua baitzegoen informazioa kontsumitzeko joerak aldatzen ari direla eta herritarren beharrei erantzun beharra dagoela.



Astelehenean aurkeztu zen Tokikomekin elkarlanean garatutako ataria.

Komunitatea, parte hartzea

2000 esker kanpainarekin Sakanako euskarazko hedabideak aurrea egiteko laguntza eskatu zuten Bierrik fundazioak sakandarrei. 1.500 pertsonen babesalortu zuten. Haiei eta ibarreko gainontzeko pertsona guztiei atari berriaren protagonista izateko gonbitea luzatu die Bierrik fundazioak, "proiektu berriaren ibarreko taldeek eta sakandarrek pro-

tagonismoa hartzea nahi genuke" esan du Ainhua Urretagoien Arruabarrena kudeatzaileak.

www.guaixe.net-en berritasun handiena Komunitatea izeneko atala da, "ahots ezberdinen edukien aberastasuna ekarriko duena". Edozein sakandar edo ibarreko talde egin daiteke kide. Horrek web gunean zuzenean parte har-

tzeko aukera ematen dio. Duela 19 urte karrikaratu zen hilabetekari hartan herritar-kazetariak izan ziren euren inguruan gertatutakoaren berri eman zutenak. Orain paperean beharrean web berrituko Komunitatea atalean hori egiteko aukera izanen da.

Urretagoienak Guaixeko komunitateko kide egiteko eta parte

hartzeko gonbitea luzatu die Sakanako kultur talde, ikastetxe, sindikatu, jubilatuz, sukaldari, kirolari, udal, gaztetxe, hedabide, bizilagun, bazkide eta herritarrei. Komunitatearen bidez euren argazkiak, testuak, bideoak eta audioak ibarrearekin partekatzen. Sakana egiteko, euskaratik eta euskaraz.

Zer da Guaixe.net-eko komunitatea?

www.guaixe.net erabiltzen dugun guztion taldea. Kidez eta erabiltzaileez osatuta dago.

Zer erabiltzaileak? Izena ematen baduzu eta ezizen bat edo jarri (ninea, jeronimo...edo antzeko beste bat), albisteetan erantzuteko aukera-eta izanen duzu. Zure erantzun guztien historiko bat osatzen ere joanen zara. Baina, Bierrik fundazioan ez dakigun or zaren eta, hortaz, bestelako edukirik gehitzeko aukerarik ez duzu izanen. Eta, eran-

tzunak ere, anonimoki baino hobe bestela emanda.

Zein dira kideak? Kideak dira izen-abizena duten erabiltzaileak, anonimoki ez diren pertsonak eta taldeak. Benetakoa "aurpegiak". Horiek, argazkiak, artikulua, iruzkinak eta bestelako edukia gehitzeko aukera izanera dute www.guaixe.net-era.

Zer egin kide egiteko eta edukia gehitzeko? Bi modu zehaztu ditugu erabiltzaile bat "benetakoa" dela ziurtatzeko.

Sare sozial bidez. Sortu zure erabiltzaile profila eta, ondoren, lotu

kontu hori sare sozial batekin (facebook edo twitterekin, momentuz). Sare sozial horietan kontua baduzu, automatikoki agertuko zara "kide" modura sare horretan dituzun datuekin (argazki eta izen-abizenekin).

Kide izaera eskatuta. Bete zure izen-abizenak eta biografia atala eta igo zure argazki bat. Ondoren, zure profilean eskatu www.guaixe.net-i kide izaera. Kudeatzaile batek konprobatuko du benetakoa datuak eman dituzula eta onartuko dizu eskaera. Eta, hortik aurrera, zure iruzkinak, argazkiak, bide-

oak... edo zure kanpoko bloga www.guaixe.net-era lotzeko aukera izanen duzu.

Behin izena emanda, edo zer esan al dezaket?

Ez, noski. Gogoratu arau simple hauek [Guaixe.net](http://www.guaixe.net)-en parte hartzeko erregistratu beharra dago. Alegia, erabiltzaile bihurtu. Erantzunetan edo bestelako ekarpenetan, [Guaixe.net](http://www.guaixe.net)-ek akusazioak eta irainak ez ditu onartuko. Halakoak baleude, [Guaixe.net](http://www.guaixe.net)-ek kentzeko eskubidea dauka. Testua euskaraz idatzi behar da. Bestela, [Guaixe.net](http://www.guaixe.net)-ek kendu egingen du.

Non erabili

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI

% 5a depilazioetan.

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI

Dendako produktuetan % 5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI

% 10eko deskontua eguzki betaurrekoetan eta % 15eko betaurreko graduatuetan.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU

Lehenengo matrikula doan.

GOROSTI

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan % 10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

LA CIGÜEÑA

ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

ANTSOTENEA

IRURTZUN

%10eko deskontua.

IZARA

ALTSASU

%10eko deskontua etxeko jantzi eta osagarrietan eta % 5eko deskontua gortina eta enkarguetan (eskaintza ez metagarria).

ARKUPE

ALTSASU

Eskaintza bereziak.

TXIKITXO

ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

ENERITZ ILEAPAINDEGIA
Jai zoriontsuak pasa!
ENERITZ SANCHEZ UGARTEMENDIA
Artola Kalea 4 behea
31820 Etxarri Aranatz
948 461 972

Ospatu Eguberriak, ingurumenarekin bat
yonolotiro.es
zure lagun ikusezina
berrerabilpenerako zure weba

Sustatzaileak: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Foru Erkidegoa
Garatzaileak: crana
Laguntzaileak: Nafarroako Hondakin Markomunitateak



Denok itsu

Xabier Reparaz Extramiana

Nafarroako eguna ospatu zuten aurrekoan gure agintariak. Xabi ergo gaztelu zaharrea erakitako eliza hartan meza entzun zuten. Erdi Aroko errege edo jaun feudal bat bailitzan, aldarretik hurbil, Nafarroako presidentea eseri zuten, aldea eta tronua arteko akordioak irudikatzen asmoz. Ondoren Iruña zaharrea, urrezko dominaz saritu zuten Once erakundeak.

Bat-batean, Nafarroako Gortean ereserkia entzun beharrea, Espainiako himno nazionala entzun zen areto zabal hartan. Lehen aldiz halakorik, agian norbait leunkeriaz koipea ematen saiatzeko, nork daki. Nafarroako egunean, Estatuko himnoa.

Gainontzeko autonomia erikidagoetan ulertuko ez luketena egiten, jabearen ferekak lortu-

ko dituen zakurren pare. Gobernatzen gaituzten nafar nortasuna ukatzen, foralista edo erregionalista zirenak zer ote dira orain? Koipezale leunkariak? Jazarlekua salbatzeko denak balio du, gure sinboloak baztertu eta besteak inposatzeak barne. Oneri eman zioten saria, agian itsuek ez dutelako ikusten, guk ere haiek bezala ez ikusiarena eginen dugun itxaropen-

nean. Itsu nahi gaituzte, gor eta mutu. Guztiok Oncen nahi gintuzkete, kritikarik ezin baitu egin autohumilazio hauek sentitzen ez dituenak. Lotsa sentitu beharko lukete nafarrak ordezkatzeko, Nafarroa gobernatzeko, garena suntsituz, garena ezkutatu eta ahaztuz, haien jazarlekuei eutsi eta irribarrea aurpegian dutela, tartalarietatik salbu sentitzeaz.

astekoa

barrutik kanpora

Garai txarrak errauskailuendako eta negozioa begibistan porlandegi-errauskailuendako

Rajoyren gobernuak prestatzen ari den erreforma handiak, hila-bete honetan onartu eta 2014ko urtarrilean indarrean jarriko dena, errausketa instalazioetako energia balioztatze teknologiei zuzenean eragiten die.

Argindar ekoizpenaren ordainketa doikuntzak, horren salmentatik sortutako diru sarreraren murrizketa ekarri die errauskailuei. Sortutako argindar guztiaren salmenta ziurtatua izate-tik eta ohiko tarifaz gain MW-hko 30,58 €ko prima jasotzetik, ohiko tarifa soilik jasotzera pasatu dira, hau da, sortutako MW-hko 77,83 € jasotzetik 55,44 € jasotzera.

Horretaz gain, orain urte bat, edozein iturritatik sortutako argindarrari %7ko zerga ezarri zitzaion. Honi guztiari %60 eta %65 bitarteko eraginkortasun energetikoa betetzeko eskari gero eta zorrotzagoa gehitzen badiogu, orain arteko energia balioztatze plantetako (FCC bezalako) antzera jardura bikoitza ez dutenak) jabeen kexu ozena sortarazi du, besteak beste, porlandegi-errauskailuek legeria askoz ere malguagoa dutelako (isurpen muga handiagoekin ere).

Horrela bada, zementugileak pozarren daude negozio berria aurreikusten dutelako, berdin die gure osasunaren, ingurumenaren edo beste edozein kalterako bada ere eta horregatik gero eta gehiago dira beren labe-etan erretzen dituzten hondakin tonak. Bereizita jasotzen den gai organikotik ez datorren materia guztiaren aldeko apustua egiten dute (Hondakinen 22/2001 Legearen arabera ez da konposta eta ezin da nekazal lurretarako erabili eta bai ordea erretzeko). Hor-tik dator beraz, hondakin bilketan bereizi egokia egiteak duen garrantzia.



3Mugak Batera Plataforma
www.olaztinerarausketarizek.com

hara zer dien

Olentzeroari eskutitza Zeuta eta Melillan jarri dituzten labantxoak ken ditzaten

Olentzero maitea:

Zeuta eta Melillarako erabakia-kiak ulertezinak dira.

Politika hauen emaitzak, itsaso zein basamortuetako hildakoak dira.

Zuregana jo dugu 2007ean baztertu zen "concertina" edota labantxoak mugetan jartzearen erabakia, berriro hartu delako

Gizatasunetik ezer ez duen sistema da, benetako premiagatik mugak gaintzea ausartzen den migratzaileari lesio sakonak eta heriotza sor diezaiokeena.

Pertsonen bizia eta osotasuna arriskularrian jartzen du. Espainiako Herritarren Defendatzailak bere garaian esan zuen moduan "bere helburua harre-

siak pasatzen saiatzen diren pertsonen gorputzean mina sortzea da".

Europa eta Espainiak ustez defendatzen dituzten baloreak bortxatzen dira metodo hauekin. Emaitzak? 20000 hildakotik gora Mediterraneoan (Lampedusa-ko gertakari tamalgarria ahaztu gabe). Demokratikotzat eta giza

balore goienekoen bermaletzat bere burua jotzen duen gizarteak, ezin du tamaina hontako neurri-rik hartu.

Ezin ditugaindi ezineko mugak onartu, eta gutxiengo humanitarioak kontraesaten dituzten neurriak hartu.

Bego Zestau, Inmigrazio Zerbitzua

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU eginen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

"Atez ateko" biltzea ala "Herriz herriko" biltzea

Martin Zelaia García, Sustrai Erakuntza Fundazioa

"Krisi ekonomiko" deritzanaren azpian benetako krisia ageri da: petrolioaren, mineralen eta erraz eta merke ateratu daitezkeen lehengaien amaierak eragindako baliabide krisi globala. Honexegatik seguruenez azken hamar urte inguruan petrolio %60eangarestituda. Era berean nafar bakoitzak urtero sortzen duen zabor kopurua ere zinez handitu da.

Hau honela izanik, hondakinen erretzea gero eta negozio handi-goa suertatzen ari da.

Petrolioaren prezioak gora egiten duen energiaren espektulatzailak bestelako "erregaien" bila aritzen dira dirua irabazten jarraitu asmoz. Ikuspegi honetatik ahalik eta hondakin gehien egitea ontzat hartzen dute gero erraustean ondorioz energia kopururik handiena lortzeko.

Sustrai Erakuntzan hondakinen inguruko gogoetak sakona izan behar duela irizten dugu. Debate hau ekonomiari eta ingurumenari loturik dagoen gaia dela nabarmendu behar dugu. Kontua zerean datza, hondakinena nola kudea dezakegun ahalbait iraunkorren. Lehenik gizartea berran-

tolatzea funtsezkoa dela diogu, energia eta baliabideetan aurrezte lehentasunezko helburua izanik.

Hondakinen kudeaketan lehenbiziko "B"-a daukagu eginkizun hau: erabilitako materialak bantze. Madalena soil baterosteko zer dela eta erosi behar material ezberdinez egindako bildukin mordoak?

Bigarrenez, beste "B" baten alde egin behar dugu: erabilitako materialen berrerabilpena.

Zergatik ez gara beirazko botilez eta bestelako ontziez baliatzen gerora berriz erabiltzeko hain aspaldi ez dela egiten zen bezala?

Hirugarrenik, beste "B" bat, birziklatzea: nola antolatu hon-

dakinen biltzea eta kudeatzea berauen % 80 edo % 90ko birziklatzea lortzeko?

Atez ateko sistemak, Sakanan eta beste hainbat tokitan gauzatu ari denak, hondakinen bereiztearen kopuru zinez handiak lortzen ditu. Banatze maila hau lortzeko honako ondorio hau dakar: bereiztu diren materialak ez dira hondakinak eta hainbat modutan erabili ahal izango diren baliabide bihurtzen dira. Hontaz hiri hondakinak kudeatzeari dagokionean gertuagotik, tokian tokitik eta gestio guztiz publikoa bultzatzearen alde egin behar dela uste dugu argi eta garbi.

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitate@guaixe.net eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Maria Luisa Zelaia Mendia
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hikuntza Politikako Salburordetza

ALTSASUKO HERRI DENDA ZABALIK: Herri mugimenduko hainbat erakunderen materiala salgai dago Foru plazan zabaldu den denda. Astegunetan 17:00etatik

20:00etara dago zabalik. Baita asteazken goizetan ere, 12:00etatik 12:30era. Larunbatetan, berriz, eguerdi eta arratsaldetan.

sakanerria >>

SAKANA

Beleixeguaixe txartela, identifikatzaile berriak establezimendutan



Deskontu eta beherapen itzelak urte osoan non eskuratu daitezkeen adierazten duten identifikatzaile berriak daude establezimenduen ateetan

Bierrrik fundazioak berriki Sakanako 80 bat establezimenduetan Beleixeguaixe txartela han erabil daitekeela adierazten duten identifikatzaileak banatu ditu. Establezimendu horien

sarreran identifikatzailea ikusten duten fundazioko babesleek sartu aurretik jakinen dute han erosketa egiterakoan deskontu edo beherapen erakargarriak eskuratuko dituela.

Sakanan euskarazko hedabideak (Guaixe astekaria eta Beleixe Irratia) sustatzen ditu Bierrrik fundazioak. Baina haiei eusteko sakandarren ezin besteko laguntza du fundazioak eta horren adierazle dira gaur egun hura babes-

ten duten 1.570 kideak.

Haiek Sakanan euskarazko hedabideen alde egiteko urtero 50 euroko kuota ordaintzen dute. Horren truke astekaria etxean jasotzen dute eta baita Beleixeguaixe txartela ere. Urte osoan ibarreko 80 bat establezimenduetan baino gehiagotan deskontuak eskaintzen ditu. Gainera, txartela eskuratze hutsagatik, ordaintzen denaren %25a errenta aitortpenen desgrabatu egiten

Beleixeguaixe txartela lortzeko

Hots egin 948 564 275 eta 948 562 107 telefonoetara edo www.guaixe.net-era sartu eta bazkide egin.

da. Hau da, Bierrrik fundazioa babesteko emandako 50 euroak erraz amortizatu daitezkeela. Diru hori etekin hirukoitza ateraz, erosketa merkeagoak, Sakanako euskarazko hedabideak lagunduz eta ibarrean erosiz bertako merkataritzari bultzada emanez eta sustatuz.

Arakil/ Irurtzun



Masifikazioarekin bukatzeko Iruñea iparraldean ikastetxe berria nahi dute.

Instantzia bidez Biurdanako gimnasioa konpontzeko eskaerak

Iruñeko Iparreko Institutu Batzordea Hezkuntza Departamentuaren pasibotasuna eta gelditasuna salatzen du

Arakilgo eta Irurtzongo DBHko ikasleak hartzen ditu Biurdana institutuak. Ikasle masifikazioa dagoela salatzen ari dira aspaldi Iruñeko Iparreko Institutu Batzordean bilduta dauden Biurdana, Irurtzun, Orkoiien, Sanduzelai eta

Patxi Larranizar ikastetxeetako guraso elkarteak.

Gaur Hezkuntza Departamentuaren egoitzan 708 instantzia erregistratu dituzte. Guztietan Biurdanan gorputz heziketa ikasgaia behar bezala jasotzeko irtenbidea berehala ematea eskatzen da. Izan ere, 30 gimnasia klase daude ikastetxean eta haietatik 19tan

bi klasek bat egiten dute. Beraz, bat gimnasioan gelditzen da eta bestea kalean edo ekitaldi aretoan aritzen da.

Aldi berean, instantzien bidez gimnasioarengainaz arduratzen den pertsona zein den jakin nahi dute. Azkenik, arduradun horrek orain arte eman dituen urratsak azaltzeko eskatzen dute instantziak.

Altsasu

Ospa eguneko salaketa artxibatu egin du epaileak

Aurreko ostegunean Ospa egunaren harira bi altsasuarrek, Garaiz Urrestarazu alkateak eta Avelino Gonzalezek, inputatu gisa deklaratu zuten Iruñeko auzitegian. Estatuko segurtasun indar eta kidegoak iraintzea, delitu hori egozten zieten. Euren abokatuaren galderei erantzun zieten soilik. Testigantza horiek eta haien kontra zeuden probak aztertu ondoren epaileak, proba faltagatik, auzia artxibatzea erabaki du.

Altsasun herriak "sufritzen duen errepresioa eta poliziek erabiltzen duten bortizkeria eta gehiegikeriekin bukatu beharra dagoela" aldarrikatzeko ekitaldiengatik bigarren aldia izan da alkatea deklaratzera joan behar izan duena. Lehena, duela bi urte, Erregearen diskurtsoa parodiaren harira, Espainiako Auzitegi Nazionalan izan zen. Eta, azkena, esan bezala, aurreko ostegunean. Bi salaketak artxibatu egin dira.


Larrezabal estatuko gazta ekologiko onena

Nekazaritza Ministerioak bi urte-tik behin Espainiako Gaztarik Onenak sariak banatzen ditu. Hainbat mailetan sari bakar bat banatzen dute. Gazta ekologiko onena Patxi Amillanok ekoizten duen Larrezabal dela erabaki du epaimahaiak. Saria, ziurrenik, Bartzelonan ospatuko den Alimentaria azokan jasoko du Amillanok.

Idiazabal Jatorri Izendapeneko buru Jose Mari Ustarrozek sariaren garrantzia nabarmendu digu:

"epaimahaia erkidego guztietako adituek osatzen dute. Idiazabal gaztaren zaporea ezaguna denez, sari hau aurkako zelaian irabaztea bezala da". Maila bakoitzean sari bakar bat ematen dela ere nabarmendu, "irabazlea txapel-duna da".

Amillano bera eta Euskal Herri-tik kanpoko lehiaketetan sarituak izan diren gazten ekoizleei Idiazabal Jatorri Izendapenak euren lana aitortuko die. Ordizian izanen da, heldu den asteartean.



Patxi Amillano artzaina.

CITROËN ek nahilago du TOTAL
KONTSUMO MIXTOA (L/100KM) / CO₂ EMISIOA (G/KM): CITROËN C4 PICASSO: 3,8-6,3/98-145

www.citroen.es

MUNDU OSOA ZURE KOTXEAN

CITROËN C4 PICASSO BERRIA

ESPAINIAN EKOIZTUTA

TECHNOSPACIA

CITROËN

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

SAN MIGUEL AUTO-TAILERRAK S.A. Citroën Kontzesionario Ofiziala. Iruñeko etorbidea z/g • ALTSASU • 948 562 261 / Akabarro industrigunea • IRURTZUN • 948 600 657

SAKANA

Dagoeneko 200 Lurkide daude

Deikaztelu eta Itsaso arteko goi tentsioko linearen kontrako beste 47 eragileren babesa bilatuko dute orain

Autopista Elektrikorik Ez! plataformak Geroa lurretik hasi leloa duen kanpainari ekin dio, Lurkideak lortzeko. Argindar linea egiteko 247 dorre jasotzea aurreikusia dago. 200 elkarte, erakunde edo norbanako egin dira Lurkide. Hala, dorre bakoitzaren oinarriak hartuko duen 10x10 metro lur sailak babestuko du, haren jabetza hartu gabe. Falta diren 47 Lurkideak proiektua ukituko ez duen beste eskualdeetako eragileen artean bilatuko ditu plataformak.

Bestalde, plataformako abokatu eta bozeramaile Alberto Friasek azaldu du toki erakundeek aurkeztutako alegazioei Red Eléctrica Española emandako eran-



Atzo egindako prentsa agerraldian Lurkide izateko deia egin zuten plataformako kideek. UTZITAKOIA

tzuna "desegokia eta zuzenbidearekin zerikusirik" ez duena dela. "Enpresak orain arte jaso gabeko justifikazioak ematen ditu, proiektuan jaso gabeak ziren. Benetako

helburua argindar soberakinaren esportazioa da, ez ukitutako eskualdeak hornitzea". Enpresaren argudio horiek Nafarroako Gobernuaren jarrera agerian utzi

duela azaldu du Friasek, hornitzea bermatzeagatik babestu zuelako proiektua. Friasek gogora ekarri du egitasmoak ikututako toki erakundearen oposizioa duela.

SAKANA

GALen garai ilunak liburu batean bilduta

Berriak egunkariak Elkar argitaletxearekin batera GAL 30 urte liburuak karrikatu du

Lasa eta Zabalaren bahiketaren urteurrenaren kontura, gertatutakoaren kontakizuna jasotzen zuen webgune berezia prestatu zuen Berriak egunkariak. Horrekin batera, duela hiru hamarkada Iparraldean bizi ziren euskal iheslariaren kolektiboak bizi izandakoa jasotzen du Berriak GAL 30 urte webgunean.

Aurkezpenean esan zuten, "hiru hamarkada pasatu dira Europan aspaldiko urteetan egon den estatu terrorismo handiena martxan jarri zenetik eta, hala ere, osogutxi da ikertu eta epaitu dena. Isiltasun eta ahanztura itun sendo batek estali nahi izan ditu urteotan orduko ardurak, politikoak eta judizialak". Gogora ekarri zuten "Espainiako estatuaren egitura, goren mailatik hasita, eskandaluaren erdi-erdian egon zen, nahiz behin eta berriro ukatu; eta ez da ahaztu behar GALek ezin izan zuela egin zuena egin, Frantziako estatuaren aparatu batzuen konplizitatearik gabe". Lanaren helburua "gertatutakoa gogoratu, eta ikertzeko zenbat falta den salatzea" da.

Stein

Berriak gertatu zenean eta ondorengo urteetan batean eta bestean argitaratutako informazioak bildu ditu. Horrekin batera, era-soak jasan zituztenen profilak, hildakoen senideen lekukotasunak eta egoera hura bizi izan zutenen testigantzak jasotuzte, "orduan gertatu zenaren tamaina eta larritasuna merezi bezala jaso eta zabaltzeko".



Liburuaren azala.

GALek hildakoen artean dago Angel Gurmindo Lizarraga, Stein, olaztiarra. Haren arreba Maria Josefa eta lagun Juan Antonio Lasaren testigantzetan oinarrituta osatu dute Gurmindoren soslaia, hainbat argazki lagunduta. Arrebak azaldu duenez, ez ditu hil zuteneko xehetasunak jakin nahi. "Batuetan gogoratzeko zara eta besteetan ez, baina nahiago dut jada ez atera gaia amagatik, edozer gauzgatik emozionalatu egiten baita". Ignazia Lizarraga amak 93 urte ditu, eta oraindik ere buruan ondo gordeak ditu oroitzapenak.

Egunkariaren gune multimedia horretako edukia paperean argitaratu zen azaro akaberan Elkar argitaletxearekin batera, GAL 30 urte izenburuarekin. Interneteko atari horretan jasotako informazio guztia ezin izan dute paperera eraman, baina jazotakoaren tamaina jakiteko balio du. Eider Goenagak koordinatu du liburu eta webgunea. Lan kolektibo horren egileen artean Joxerra Senar kazetaria dago.



Berun garaiak liburura

Nafarroako Gobernuak ostiralean aurkeztu zuen *Relatos de plomo* liburuak, "1960tik 1986ra Foru Komunitatean egindako ekintza terrorista guztiak zehaztasunez biltzen dituen lehen argitalpen historikoa. Foru Komunitatean izandako ETaren indarkeria terroristak eragindako kalteak zehaztasunez eta ikuspegi historikotik jasotzea du helburu".

Ostiralean aurkeztu zuen liburuak heldu den urtean segida izanen du. Bigarren liburu horretan 1987tik gaur egun arteko kronika eta kontakizunak jasoko ditu. Gainera, www.relatosdeplomo.es web orrian ere sortu du gobernua. Javier Marrodan kazetariak (historian doktorea, Nafarroako Unibertsitateko irakaslea eta *Regreso a Etxarri-Aranatz* liburuaren egilea) zuzendu du. Harekin batera, Gonzalo Araluze, Rocio Garcia de Leaniz eta Maria Jimenez kazetariak osatzen dute.

Sakanaz

Urte horietan gertatutako indarkeriazko ekintzei buruzko 190 kronika jasotzen ditu liburuak, baita ETaren atentatuak zuzenean jasan zituztenei egindako 25 elkarrizketa ere. Haien atentatuaren berri eta jasan zituzten ondorioak kontatzen dituzte elkarrizketatuek. Horien artean daude ETak Altsasun hil zuen Sebastian Arroyo (1980-01-09) Guardia Zibil ohiaren alarguna, Maria Vicenta Anlló, eta ETak berak Etxarri Aranatz hil zuen Jesus Ulaiar Lizziaga (1979-01-27) arreba Martina eta haren alaba Mari Nieves.

Alargunak kontatu du bere seme-alabei ez diela sekula inolako gorrotorik irakatsi. "Haiekin nagoene-



Liburuaren azala.

an, aitaz aritzen garenean, gauza onetaz gogoratzen gara; baina sekula ez dugu hiltzaileez edo atentatuan lagundu zutenek hitz egiten. Mari Nievesek, berriz, haien aitak etengabe mehatxuak eta irainak jaso zituen urte haietan bera haren kuraiaz eta zintotasunaz "oso harro" sentitu zela. Heldu den astean 25 urte beteko dira Altsasuko kuartelaren kontrako atentatu batean Jose Aguilar Garcia guardia zibilak hanka bat galdu zuela. Hari egindako elkarrizketa 2014an argitaratuko dute.

Liburuaren kronologia atalean jasoak daude Sakanan ETak egindako makina bat ekintza, Nafarroan egin zuen lehena barne (1963ko abenduaren 9an, Altsasun, tren bagoi batean hiru dinamita kartutxo jarri zituen), baita kide edo laguntzaile izateagatik izandako atxiloketak. Hor GALek Angel Gurmindok hil zuela jaso da. Aparte, egileak esandigu "kontrol batean Guardia Zibilaren tiroek hildako Mikel Arregi Marin (1979-11-11) Lakuntzako HBko zinegotziaren moduko gertaerak" ere jaso dituztela.

MOTZEAN

Behiak dopatzeagatik inputatutako abeltzainak ez du Lacturalekin zerikusirik

Berriki bere behiak dopatzeagatik Erroibarren abeltzain bat inputatu dute. Lacturalek jakinarazi du abeltzain horrek ez duela haiekin zerikusirik. Brucela operazioan Sepronak abiatutako ikerketan 100 pertsona baino gehiago ikertzen ari dira, nonbait hainbat behitegitan esne produktioa handitzeko asmoz euren abelburuak behisomatotropina hormonarekin dopatzeagatik. Aipatu hormona debekatua dago Europan, abereei lesio larriak sortzeagatik eta pertsonen osasunengan dituen efektuengatik. Inputatutako artean Erroibarko abeltzain bat eta Irurtzongo enpresa bat daude.

Bere oharrean Lacturalek oroitarazi nahi du Lacturale, maila nazionalen eta nazioartean saritutako esnea izateaz gain, Nafarroako Ekoizpen Integratuan Ziurtatutako esneadela. Honek "elikagaien segurtasunean exigentzia handiagoa, ingurunearekiko errespetua eta animalien ongizatea" bermatzen duela nabarmendu dute Lacturalek.

Dagoeneko herriko kalendariyua salgai

Elurtutako Hiru Haitzetatik ikusten den Bakaikuko ikuspegia. Edo autobiko sarreratik ikusten dena. Ospakizunetako argazkiak: ihoteak, maizta jartzea eta festak. Iluntze bat. Basoa. Herria elurtuta. Edo larrainean lanean ari diren bakaikuarren txuri beltzeko argazkia. Irudi horiek guztiak biltzen dira herritar talde batek egin duen egutegian. Gainera, bakaikuko euskararen idatzia. Estankotan edo Kotxko tabernan daude 5 eurotan salgai.

Truke azoka gazte gunean

Altsasuko Intxostiapunta gazte gunea domeka arratsaldean (17:00etatik 21:00etara) joaten diren gazteek euren objektuak trukatzeko aukera izanen dute. Egoitzan izanen diren objektuetako bat hartu eta etxetik eramandakoa utzi, horixe besterik ez dute egin behar. Bestalde, inuxente egunerako urtea despeditzeko afari autogestionatua antolatu dute. 21:00etatik 1:00etara egonen da zabalik egoitza eta DJ Sergeyren doinuekin gozatzeko aukera izanen dutenahi duten guztiak. Ilbeltzaren 9an, bestalde, sukaldaritzako ikastaroa hasiko da. Egoitzan bertan eman behar da izena. Intxostiapunta gunean, gainera, onlineko sexu aholkularitza eskaintzen du sexuzgaldeintxostiapunta@gmail.com postara idatzi dezakete zalan-tzak argitu nahi dituztenak. Anonimotasuna zainduko dute. Gainera, gunean gazteak bilerak egiteko, ziberra, wifia, sukalde, musika entseguak... daude. Gazte Informazio Gunea han kokatuta dago.

SAKANA

Institutuak D ereduarekiko errespetua eskatu du



Institututik ikertutako irakasleekiko elkartasuna adierazi dute.

Guardia Zibilak ikertutako irakasleei elkartasuna azaldu eta ikerketa bera kritikatu du

Hezkuntza komunitatea kontrolatzeko ezker abertzaleak lukeen asmoen berri jasotzen zuen Guardia Zibilaren ustezko dokumentu baten berri zabaldu du UPNk. Horren harira D ereduaren kontrako adierazpenak egin dituzte buruzagi erregionalistek. "Informazio faltsu eta adierazpen politiko arduragabeen soka luzearen aurrean" Aralarko Mikel Donea institutuko klaustroak eta eskola kontseiluak, aho batez, adierazpena adostu dute.

Lehenik, institutuko hezkuntza komunitateak Nafarroako Gobernuak, Lehendakaria eta Hezkuntza Kontseilaria buru, hezkuntza ideologikoki kontrolatzeko erakutsi duen asmoa arbuiatu du. "Bere jarduerak kultura demokratiko eskasa erakusten du; adierazpen, elkar-tze eta irakaste askatasunarekiko errespetu falta erabatekoa; eta nafar irakasleriaren lan hezitzailearekiko mespretxu onartezina".

Institutuko klaustroak eta esko-

la kontseiluak Guardia Zibilak 1.600 profesionalen gaineko ikerketa indiskriminatua salatu du: "beren intimitatearen, integritate profesionalaren eta askatasunaren aurkako eraso den aldetik. Horrelako jarduerak bertan behe-za uztea eta dagokion ardurak argitzea exijitzen dugu". Gainera, irizpide ideologiko eta alderdikoen arabera irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea mugatzeko saiakeren aurka azaldu dira.

Aldi berean, Aralarko Mikel Donea institutuko hezkuntza komunitateak D ereduarekiko errespetua exijitu du: "bera eman duten ikastetxeekiko (eskola publikoak eta ikastolak). Baita Sortzen bezala, hezkuntza euskaldun, inklusibo eta hezikidetzailerik baten alde lanean dabilzan elkar-teekiko". Aldi berean, klaustroak eta eskola kontseiluak "Nafarroako irakasleriak egiten duen lan hezitzailea aldarrikatzen dugu, Nafarroako Gobernuaren murrizketa ugarien gainetik kalitateko hezkuntza bermatzeko ahalegin itzela egiten ari dena".

LABek gobernuaren kontrol ideologikoaren obsesioa salatu du

1936ko gerrakoan errepresioa jasan zuten 293 irakasle nafarren zerrenda eman du. Haien artean Sakanan ari ziren 14 irakasle daude. Enplegu eta soldata kenduz zigortu eta ondorioz eskola galdu zuten Justo Irure Etxebarria (Iturmen) eta Isidro Carlos Martxueta (Urdiain). Eskola galdu eta urte batez aritzeko ezgaitu zuten Antonio Zubieta

Gorriti (Olazti). Aldiz, Manuel Garcia Rodriguez (Uhartea), Carlos Rodriguez Perez (Lakuntza), Milagros Fernandez Marañon (Altsasu), Juan Rubio Lezea (Altsasu) eta Victor Uhartea Errazkin (Altsasu), kargugabetuak. Bestelako zigorrak jaso zituzten Pedro Lopez Dejerena (Errotz), Amelia Garro Garcia (Uhartea), Victoriano Aguado Baza (Etxarri Aranatz) eta Virginia Alonso Peña (Etxarri). Azkenik Daniel Garrido Jimenez (Etxarri) eta Domingo Bados Garcia (Olazti) fusilatutak.

Etxarri Aranatz

Enneco eta Gurelur, eskutik

Nafarroa Bizirik fundazioak, Etxarri Aranazko Udalak eta Gurelur elkarteak hitzarmena sinatu dute. Horren arabera, fundazioak eta udalak konpromisoa hartu dute ingurumen alorreko neurri orekatzailerak hartzeko. Hala, Enneco, haritzaren memoria proiektuak Basopokale dermionan ingurumenean eragin ditzakeen afekzioak indargabetu nahi dituzte. Horretarako, bierakundeek Gurelur elkartearekin lankidetzara esparrua adostu dute.

Hitzarmenaren arabera, Gurelur elkarteak konpromisoa hartu

du Basopokale aldeko eta inguruko natur baliotan egon daitezkeen afekzioak ahalik eta gehien indargabetzeko. Horretarako, Gurelurrek ingurumen alorreko neurri orekatzailerak proposatuko ditu, aurrerantzean zehaztu eta garatuko dituenak.

SAKANA

Batuta, indar berrituta aurrera

Igandean, Etxarriko Zorri Azokan aurkeztuko dute euren burua

Asteburuan antolatutako Ardo Azoka "nekatuta baina pozik" utzi zituen Batutako kideak. Lan aukerak sortzeko elkartu ziren 15 sakandarrek asteburuko "oso esperientzia positiboa" izan dela adierazi dute. Eta bisitariek izandako jarrera nabarmendu dute: "galdera asko egin dizkigute. Gainera, eginez ikasi metodologiarenkin jende asko identifikatuta sentitzen da, aurretik haiek ere hala aritu direlako". Aldi berean, bisitarien heterogeneotasuna nabarmendu dute. Ardo Azoka posible egin duten kolaboratzaile eta laguntzaile guztieieskerrak eman dizkiete Batutako kideek.

Ekintzaileak

Euren moduan enplegua sortzeko lanean aritu diren lekukotzak izan ziren azokan. Juan Cruz Bengoetxea Saez de Maturana Altsasuko Kooperatibako kideak gogora ekarri zuen enpresa sortzeko prozesuaren aurreko egoera. Urtean lantoki berean aritu ondoren,



Batutaren Ardo Azokak jendea erakarri zuen.

50 urterekin langabezian ikusi zuten euren burua. Kooperatiba sortzeko izan zuten jarrera aldatu aipatu zuen.

Bocalan Biak Bat fundazioko kide Josu Mendezek animaliekin lagundutako terapien arloan egiten duen lana azaldu zuen. Hura legezatzeko dagoen lege hutsunak sortzen dizkion buru haustek nabarmendu zituen, baita aurretik egindako borondateko lana. Lakuntzako Espe, Saioa eta Naia-arak psikomotrizitate terapiak, bai terapeutikoak bai prebentziokoak, eskaintzen dituzte 3 eta 6 urteko

haurren dako. Terapien berri eman zuten. Ilbeltzean abiatuko dira.

Bricotrainning-aren berri ere izan zuten Ardo Azokan izan zirenak. Lidergoa garatu eta erabakiak hartzeko tailerrak egiten ditu Brikoymien enpresa altsasuarrak. Lantegian beste enpresetako plantillak hartzen dituzte. Euren lan esparrutik kanpora lan taldeak zerbait egin behar du han dauden tresnekin. Lan taldea nola antolatzen den, nola hartzen diren erabakiak eta abar ikusteko aukera ematen du ariketak, Batutakoek beraiek probatu dutena.

»

Lau enpresek lehiakortasuna handitu dute

Gizarteko eta ingurumeneko eragina hobetzen duten jarduerak jarri dituzte martxan

Kudeaketa arduratsua eginik lehiakortasuna handitu dute Sakanako lau enpresek. Horretarako enpresen gizarte-erantzukizuna eta ekoberrikuntza erabili dute eta,

horregatik, haien eta beste 82 enpresaren ahalegina aitortu zuten Nafarroako Gobernuan ostiralean egindako ekitaldian. Tartean zeuden Aceros Moldeados de Lakuntza SA (hobekuntza zikloa), Burundesa SA (hobekuntza zikloa), Prosimed (ingurumen



UTZITAKOIA

auditoria) eta Kerabi gestion ambiental (ingurumen hobekuntza plana). +www.guaixe.net

Iturgintza
Berogintza
eta Gas

Eguberri on!

PEIO

659 286 344

Eguberri zoriontsuak pasa eta urte berri on!

maríaeugenia
Arrainak

www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsalde zabalik

**Abenduaren 23, astelehena
eta 30 astelehena,
goiz eta arratsalde zabalik**

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zorionak eta eguberri on!

Geltoki auzoa 11 • Altsasu
948 467 317 • 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Irurtzun

Jostailuen elkartruke arrakastatsua Irurtzunen

Larunbatean haur eta gurasoz bete zen Irurtzongo plaza. Jostailuak zeuden elkartrukean

Elkartrukeerako azokaren ideia, duela urte batzuk sortu zen. Jostailuekin elkartrukeak egitea da xedea. Irurtzongo ikastetxera eramaten dituzte lehenbizi, Atakondoa eta horien truke, tiketa edo balea eskuratzen dute haurrek, gero azokan beste haur baten jostailua hartzeko.

Arrakasta handia lortu du ideia horrek. Jostailu asko iritsi dira aurten, parte hartze handia izan da. Eta jostailu asko gelditu dira

jaberik gabe. Baina, ez da hori arazoa izanen, soberan gelditzen diren jostailuak Senegalera bidaliko baitituzte.

Puzleak, pelutxeak ... Denetarik jostailuak izan dira herriko plazan. Hori bai, ez da etxean garbiketa egitea helburu, baizik, ongi dauden jolasak, oraindik erabilgarri daudenak eta erabiltzen ez dituztenak elkartrukatzea.

Haurrek ulertzen dute elkartrukearen xedea. Hori bai, lan eskergegin dute sentsibilizazio hori lortzeko: gelaz-gela joan dira azokaren nondik norakoak azaltzera.



Aukeratu bitartean, jokoak ezagutzen eta jolasten. MAIALEN HUARTE ARANO

Jostailuak erosi aurretik, adi!

Eguberrietan, gogoeta egin behar da jostailuen erosketa egiterakoan. Jostailu egokiak aukeratzeko da xedea. Hauexek dira gomendio batzuk:

- Jostailu desmuntagarriak erosten badituzu, baztertu itzazu txikiak haurrek ahoan sar ez ditzaten.
- Egiaztatu fabrikatzailearen izena, marka erregistratua eta helbidea agertzen direla.
- Argi ibili jostailu elektrikoekin, debekatuak daude 24 volt baino gehiagokoak.
- Jostailuak jostagarriak izateaz gain, hezigarriak izan daitezke. Jostailu onak haurraren irudimena garatu eta haurra dibertitu eta hezi egiten ditu.
- Jostailu bat erosterakoan kontuan hartu haurraren zaletasunak eta gustuak zein diren.
- Gainontzeko haurrekin jolasteko balio badute, gehiago gustatu ohi zaie.
- Jostailurik onena ez da garestiena, haurraren izaerari, adinari eta heldutasunari hobeki egokitzen dena baizik.
- Jostailua haurraren garapenari eta adinari egokitu behar zaio.
- Jostailuak estimulatzailea izan behar du, hau da, irudimena, sormena, gizartera-

tzea, elkartasuna eta bere gaitasunak garatu behar ditu.

- Ez da egokien urte sasoi berebean opari asko oparitzea: urtean zehar opariak egitea da egokiago.
- Jostailuak ez du oso konplexua izan behar: haurra da harekin jolasean ariko dena.
- Ez fidatu publizitate kanpainen eskaintzen dituzten jostailuekin. Horiek dira bazterrean uzten dituzten lehenak.
- Jostailuaren segurtasunarekin arduratsu jokatu. Europar Batasuneko zigilua eraman behar du, CE.
- Garrantzitsua ez da jostailu asko erostea, haurrekin, seme-alabekin denbora gehiago pasa eta eurekin jolastea baizik. Horregatik, joko kooperatiboak jarri dituzte azokan: ez zen garaile ez galtzailerik, ongi pasatzea zen helburu bakarra eta horren inguruan haurrek ere hausnartzea. Hala uste dute antolatzaileek: Itxipuruk, guraso elkarrekin, gizarte zerbitzuak eta ikastetxeak berak.
- Datozen urteetan ere halako kanpainekin eta azokarekin jarraitzeko nahia adierazi dute, aurtengoan lortutako arrakastaren ondoren. Jostailu kooperatibo eta tradizionalak lortu dute haurren atentziorik handiena eta goizaz gozatzeko aukera izan dute.

Etxarri Aranatz



Aritz Munarriz eta Itsaso Ganboa herri mugimenduko kideak, Arantxa Artieda (NaBaiko zinegotzia) eta Joxi Bakaikua (Bildu, alkatea) izan ziren agerraldian.

Bertako ikurren aldeko deia

Igandean, 12:00etan Etxarri Aranazko plazan auzatea eta ondoren manifestazioa eta mosaiko erraldoia

Gure ikurren defentsan, inposizio-rik ez! aldarrikapen hori zabalduko da etzi Etxarri Aranatzen. Izan ere, 2013ko lastailaren 8an Nafarroako Auzitegi Nagusiak eman zuen epaian Etxarri Aranazko Udalarri bi hilabeteko epean udaletxean Espainiako bandera jartzeko agindu zion. Hala egingen ez balu hautetsiak inhabilitatuko lituzkete eta udalak isun handia jasoko luke.

Espainiako bandera udaletxean jartzeko lehen eskaera jaso eta errekurritu ondoren Etxarri Aranatzen Gure ikurren defentsan, inposizio-rik ez! lan aldea sortu zuten Etxarriko zenbait taldek eta eragilek, udal ordezkarietara. Eta lan talde hori da hain zuzen ere etziko manifestazioa deitu duena. Harekin "salatu nahi dugu inposizio hori etxarriar gehien nahiaren kontra egingen dela, eta, beraz, udalaren gehiengoaren kontra". Eta gaineratu dute: "gurea

ez den ikur bat jarri behar izatea inposizioa antidemokratiko hutsa da, gure herritarren identitate askatasunaren kontra dago".

Manifestazioa eta mosaikoa osatzera deitzeko agerraldia beste salaketa bat egiteko ere baliatu zuten: "legegintzaldi honetan gure udala eta herria izugarriko kanpaina judizial, politiko eta mediatikoa jasaten ari da, aurreko legealdietan inolako aurrekaririk izan ez duena".

NaBaiko Arantxa Artiedak nabarmendu zuenez, "bandera hori udaletxera itzuli da etxarriar gehien borondatearen kontra emandako ebazpen baten bidez. Argi dugu, ofizialki eta sozialki agerian utzi behar dela gehienok Espainiako bandera ezartzearen kontra gaudela. Ez dute lortu ez menderatzea ez konbentzitzea. Inposizio hutsa besterik ez da izan".

Lantaldearen izenean alkateak herritar guztiei lanean jarraitzeko gonbitea egin zion: "gure nahia errespetatuko duen estatus juri-

diko, politiko administratibo berri baten alde. Argi dago, gaur egungo estatus egun ez daukagu tokirik". Herri mugimenduko ordezkari Itsaso Ganboak "etxe eta elkarte guztietan gure ikurrak jartzeko deia" egin zuen.

Aspaldiko defentsa

Francoren diktaduraren ondoren ez da Espainiako banderarik izan Etxarri Aranazko udaletxean, "herritarrek eta hautetsiek hala nahi izan ez dutelako; gurea ez delako". Joxi Bakaikua alkateak nabarmendu zuen 1977ko ilbeltzaren 16an, trantsizio garai-ko alkateen mugimenduak Etxarriko udaletxean ikurriaren alde egin zuen ekitaldi sonatua: "Orduan Etxarri Aranazko korporazio osoak osoko bilkura berezi batean aldarrikapen historikoak egin zituen gure ikur, erakunde, hizkuntza eta askatasunaren alde. Agerraldian ordezkatuak izan ziren udal, talde eta herritarrek duela 36 urte aldarrikatutako puntuak berresten ditugu".

MOTZEAN

Zorri azoka handitua

Igandean, 12:00etatik 21:00etara Etxarri Aranazko frontoian

Hileko lehen ostiralean ospatu ohi da Zorri Azoka, estalopean. Abendukoa egin eta bi astera atzera ere azoka sozialak bere eskaintza berri-tuko du. Etzi izanen da, ordutegia eta espazioa zabalduz. Egurditik gauera, bertako produktuen ekoizleak eta artisauek Euskal Herriari pilotalekuak hartuko ditu. Batuta taldekoak pintxoak eta ardo egosia salduko dute eta haien proiektuen berri emanen dute. Sakanako Ezgaituen Elkarte ere azoka sozialean ere izanen da. Gainera, haurren postuak eta gaztina saltzailea ere izanen dira etzi frontoian. Ohibezala, 19:00eta-

tik 20:00etaragauzak trukatzeko aukera izanen da azokan bertan.

Sakandarren topagune bihurtzeko bokazioa du Zorri Azokak. Eta hura indartzeko gonbidatuak izaten dituzte aldi bakoitzean. Etzi Larri bonberoaren zirku ikuskizuna izanen da (17:00etan). Jaione eta Aintzane kantariak kontzertua eskainiko dute ondoren, (18:30ean).

Magnesitaren errausketaren kalteez ariko dira Bakaikun

Larunbatean, 18:00etan, Bakaikuko udaletxean

"Magnesitaren kaltziazioa Sakanan. Gure osasunarendako arrisku larria" lelopean hitzaldia antolatu dute

bihar, larunbatean, 18:00etan, Bakaikuko udaletxean. Alduide Mendia koordinakundeko bi kidek eta 3Mugak Batera plataformako kide batek eskainiko dute hitzaldia. Jakina denez, Cementos Portland Valderrivasi magnesita errausteko baimena eman zion, abuztuan, Nafarroako Gobernuak. Horrekin batera, hondakinen errausketa egiteko baimena du ere Olaztiko portlandegiak. "Jarduera hauek eragin oso larria izango dute ingurunean eta gure osasunean" diote 3Mugak Batera koek. Horren adibide Erroibar jartzen dute. Magna enpresak magnesita erraustendu bertan, eta estatuko gune kutsatuenetako bat omen da. Jarduera kutsakor honi aurre egiteko Alduide Mendia Koordinakundea jaio zen eta hain zuzen ere talde horretako bi kide hurbilduko dira Bakaikura.

BAKAIKUKO UDALEKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA:

2013ko abenduaren 10ean Bakaikuko Udaltzako erabaki zuen Bakaikuko Udaleko Plan Orokorraren aldaketa behin behineko onestea, Bakaikuko UE-38 Hirigintza Hitzarmenaren onepnaren ondorioz eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 24 eta 74 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

BAKAIKUKO UDALA

Andra Mari
Ikastola
ETXARRI ARANATZ

Andra Mari Ikastolako DBH 2. mailako saskiaren zenbaki saritua **978** izan da.

Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!

Olentzero

Olentzero, zakua bete... zer?

Irurtzun

Irurtzango haurrak adar eta zintzarriekin aterako dirakalera astearte arratsaldean. Haien deia entzunda, 18:30ean iritsiko da Olentzero Irurtzango Plazaolako zubira. Iskidi taldeko joaldunak eta pertsonaia mitologikoak, Orritz dantza taldea, txistulariak, gaiteroak, trikitilariak, akordeoilariek, musika eskolako fanfarrea, Irurtzango koroa, Atakondoa eskolako guraso elkarte... izanen ditu zain. Kalejira jendetsua egingen dute, tarteka dantzatzeko eta abesteko geldituz. Plazan Olentzerori abestuko dio herriko abesbatzak. Gaztainak eta intxaurrek banatuko dituzte.

Etxeberri

Astelehenean, 18:30 aldera, basotik jaitsiko da ikazkina eta askan egingen dute harrera. Haurrek Olentzerori gutunak eman ondoren, elkartera joko dute. Txistulariak lagun, ikazkinari omenezko kantuak abestuko dizkiote. Olentzerok bere boltsan beti gozokiren bat edo beste izaten du. Taloak, txokolata eta gaztainak dastatzeko aukera izanen dute bildutako guztiak. Akaberan, lagun ikustezinaren opariak banatuko dira.

Etxarren

Asteartean Urritzola aldetik iritsiko da Olentzero Etxarrena, 16:30ak aldera. Elizsarreran harrera egingen diote. Musikak alaitutako kalejiran abiatuko dira guztiak, Olentzerok dituen goxokiak banatzen dituen bitartean. Frontoian bukatuko dute ibilbidea eta han ikazkinak ekarri dituen opariak banatuko ditu. Helduendako auzatea eta haurrendako txokolata izanen dira.

Zuhatsu

Igandean, 18:00etan jaitsiko da ikazkina menditik. Autobus geltoki ondoan harrera egingen diote, zuzi argi eta trikiti doinuz lagunduta. Ondoren elkartera joan dira. Sarreran Olentzerori dantza eskainiko diote eta, gero, barruan berak txikiei opariak banatuko dizkie. Otamena izanen da.

Satrustegi eta Hiriberri

Satrustegiko elkarteandago hitzordu jarrita asteartean, 17:30ean. Han bilduko dira bi herrietakoak, txokolata beroak erakarrita. 18:30ak alderako Olentzerori merezitako harrera egingo diote. Gurdira igo eta Hiriberriko bidean jarriko dira guztiak, 19:00etan, eta kalez kale kantari ariko dira. Txitera elkarteandago hitzordu jaitsiko, otamenarekin.

Ihabar

Gurdi gainean, Andiatik 18:30ak aldera jaitsiko da Olentzero Ihabarrera. Txistu eta kantuz lagunduta ihabardarrek herrian barna gidatuko dute, ibilbidea plazan despidituko. Ikazkinak poltsan dituen jolasak txikiaren artean banatuko ditu. Hura agurto ondoren, gaztainak eta sagardoa banatuko dira.

Irañeta

Andiatik jaitsiko da ikazkina asteartean, 18:00etan. Irintarrak, trikitilariak eta momotxorren bat lagunduta, Olentzerok herriari bisita egin ondoren bisitan kantari ariko dira. Kalejira bukatzean ikazkinak ekarri dituen opariak banatuko ditu. Hura agurto etagero, Txapel Azpi elkartearen zarea zozketatuko da. Jan-edanik ez da faltako.

Uharte Arakil

Urtero moduan Iruñeko Sanduzelai auzoko 600 bat pertsona espero dituzte astelehenean, 17:00ak aldera, Uhartan. Aralar magalera joko dute Olentzerori gutuna emateko.

Astearte goizean paskuan amores eskean ariko dira txikiak etxez etxe, goxokiak eta dirua bilduz. Egurdiaren, guztiak eta joaldunak bazkaltzera elkartuko dira. Ikazkina eta Mari Domingi Beriaindik 18:00ak aldera jaitsia espero dute Uhartan. Txalapartariak eta joaldunak egingen diote harrera eta segituan herrian barna abiatuko da segizioa. Frontoian dantzariak dantzak eskainiko dizkiote bisitariari. Bukatzean txiki eta gaztetxoek goxokiak jasoko dituzte eta helduendako ardo egosia izanen da.

Arruazu

Ubeldeko zubian zain izanen ditu Olentzerok arbuazur gazteak, 19:30ean. Herrira gidatu eta han, musika lagun, kalez kale kantari ariko dira guztiak. Adindu eta gaixoen etxeetan geldialdia egingen dute Olentzerok haiei opariak emateko. Itur-gain elkarteandago hitzordu dute guztiak ibilbidea eta han Olentzerok opariak banatuko ditu. Guztiendako gaztaina erreak izanen dira.

Lakuntza

Lakuntzarrek Biltoki elkarte apainduko dute astearteko goizean, 11:30ean, arratsaldean Olentzerok polit-polit aurki dezan. Iluntze aldera lakuntzarrek ibai aldera joko dute, Olentzeroren bila. Bertan, dantzariak eta bildutako ongi etorri beroa egingen diote Aralartik jaitsi berri diren Olentzerori eta Mari Domingiri. Jarraian, herrian barna kalejirari ekinen zai. Elai-Alai dantza taldeko dantzariak, gaiteroak, txistuek eta fanfarreak alaituko dute ibilbidea. Elai-Alai taldearen dantzez eta Lakuntzako abesbatzaren kantuez gozatzeko parada izanen da. Biltoki gaztainak eta txokolata banatuko dituzte. Olentzerok haurrei bere istorioa kontatu etagero, Euskal Herrian Euskarazkoek pertsonaia berria aurkeztuko dute: Mari piper saltsera, saltsa guztiarako piperra. Ondoren, Olentzerok opariak banatuko ditu.

Arbizu

Herriko txikiak Olentzero etorriko dela iragarriko dute asteartean. 18:30ean plazan bilduko dira eta gurdia hartuta arbuazurak Txemiñaga aldera joko dute, Aralar aldetik jaitsiko baita Olentzero. Trikitilarien doinuek lagundutako kantuek egingen diote harrera



ikazkinari. Gurdira igo eta arbuazurren laguntzaz herra joko dute. Akerruntza eta beheko auzoa bisitatu ondoren, plazara abiatuko dira. Bidean goxokiak eta gaztainak banatuko ditu ikazkinak, eta Argi-Bidean haurrei opariak banatuko dizkie.

Dorrao eta Unanu

Lezizatik Dorraora iritsiko da Olentzero, 18:00ak aldera. Harrera egin ondoren, gurdian igo eta plazara joko dute. Kantuekin ikazkinaren belarriak eztituko dituzte eta hark, eskeronez, goxokiak eta pastak banatuko ditu. Ondoren, Unanura joko dute. Kantuan, musika lagun, herriko kaleak ibili ondoren, plazan kantu gehiago izanen da. Atzera ere, ahoa gozatzeko emanen ditu Olentzerok.

Lizarraga

Ikazkina mendian opatu duten bi laguntzailek erakutsiko diote Lizarragako bidea, horregatik azken unera arte ez da jakingo nondik etorriko den Olentzero. Baina berria azkar zabalduko da eta lizarragatarrak harrera egiteko prest izanen dira 18:00etarako. Gurdian igota herri bisitatu du, trikitilarien eta kantuen doinuekin. Zugainen jatekoak dastatzeko geldialdia egingen dute eta ibilbidea kalez kale segituko dute Azi-Iturri elkarteandago hitzordu dute. Han denendako jatekoak izanen dira.

Etxarri Aranatz

Etxarri Aranatzko haurrek etxez etxe paskuen amores eskean hasiko dute eguna. Arratsaldean, 17:00etan, Aldapasoro auzoan bilduko dira etxarriarrak, Olentzeroren zain. Txokolata bero-beroa hartzeko aukera izanen da. Olentzero Aritzalkoko basotik etorriko da eta dantza eta kantuekin egingen diote harrera. Olentzero gurdira igoko da, eta, kalejiran, herrirako bidea hartuko dute guztiak, txistulariek eta trikitilariak lagunduta. Kantu eta musika artean herriko plazara iritsiko dira. Bertan, omenezko dantza egingen diote herriko dantzari txikiak eta Olentzerok plazan bertan banatuko ditu gozokiak.

Bakaiku

Ikazkinaren bila atera aurretik, 17:00etan, txokolata izanen da Bakaiku elkarteandago hitzordu. Zulanpeko bidetik iritsiko da Olentzero Bakaikura. Harantz joko dute herritarrek, ikazkin handiari harrera egiteko. Akordeoilarien laguntzaz, kantuan, guztiak oinez kalejiran abiatuko dira herrian barna. Beheko baserrietan agurtuko dute Olentzero. Bueltan, herrian, auzatea izanen da.

Iturmendi

Olentzerogurdi gainean 19:00 aldera agertzea iragarri dago Iturmendin. Kantuz harrera egin eta, trikitilarien doinuek lagunduta, kantuan kalejiran abiatuko dira segituan. Ibilbidea frontoian despidituko dute. Guztiendako intxaurrek eta ardo egosia izanen dira. Olentzero agurtu aurretik, Biltokiko gazteek euren zarea zozketatuko dute.

Urdiain

Olentzero astoa eta bere laguntzaileekin etorriko da menditik, 18:00ak aldera, Bentara. Gurdian igo, eta herriko txistularien eta dantzarien laguntzarekin herrian barna ibilbidea egingo dute urdiaindarrek. Beste gurdian Jesus haurtxoa joango da. Ibilbidean zehar geldialdiak egingo dira Urdiaingo dantzarien dantzekin gozatzeko. Bukaeran Olentzerori musu eman eta ardo egosia eta pikuak dastatzeko aukera egongo da.

Altsasu

Eguberaren taldeak, Altsasuko 3 ikastetxeek eta herriko kolektiboek Olentzerori harrera egiteko egitarau oparoa prestatu dute. Ostiralean, 19:30ean, lortia Kultur Gunean bilduko dira Olentzeroren kantak entseatzera. Eta astelehenean txondorra eta eskenatokia prestatuko dituzte, 9:00etan.

Asteartean, goizeko 11:00etan eskolaniako eta fanfarreak ikasleak Musika eta Dantza eskolako atletik kalejiran abiatuko dira plazara, Mari Domingirekin biltzeko.

Aurreko txistulariak batuko zaizkie, eta guztiak kalejiran jarraituko dute, Zumalakarregi plazara, hamaiketako egiteko. Bitartean Mari Domingi haurrek Olentzerori idatzitako gutunak jasoko ditu.

Arratsaldeko 17:00etan, plazatik abiatuko dira, Mari Domingirekin eta Altsasuko dultzaineroekin batera, Dantzalekuraino joateko. Izan ere, menditik Dantzalekurajaisiko da Olentzero, 17:45ean. 18:00etan, dantzariak harrera egingen diote ikazkinari San Pedroko Bideko biribilgunean. Ondoren kalejiran ibiliko dira herrian barna, fanfarre, txistulari eta kantariekin. 18:45ean geldialdia egingo da Zumalakarregin. Bertako txondorren Olentzerok bere lanbidea nolako den azalduko du eta Mari Domingirekin batera, askaria banatuko die bildutakoiei. Lortia plazan, 19:15ean, mihura banatuko dute, San Juan bezperan erre dezaten. Olentzeroren kalejira Foruen plazan despidituko da. Dantzariak, fanfarrea eta abestiez lagunduta agurtuko zai ikazkinari.

Olazti

Domekan, 18:00etan, Akelarre ludotekan Laminaturren bisita izanen dute haur olaztiarrek. Ikazkinari idatzitako eskutitza eskura emango diote, honek gero Olentzerori eman diezaioten. Asteartean, 18:30ean, Belen iturritik etorriko da Olentzero. Herrian barna trikitixaren laguntzarekin kalejiran ibiliko dira eta bukaera ekitaldia frontoian izango dute. Bertan, gaztaina erreak eta konpota jateko aukera izango da.

Ziordia

Ziordia Bizirik plataformak eta Gaztetxeak prestatuko dute Olentzeroren festa. Goizean herriko neska mutikoak puska eske eta kantuan ariko dira etxez etxe, urteroko Agur-agurrean. Bildutako guztiarekin arratsaldean meriendatxo egingo dute. 19:00ak aldera Olentzero menditik jaitsiko da eta herriari buelta emango diote bildutakoak, trikitixa lagun. Gaztetxean jarraituko du festak. Auzatea egonen da eta haurrek Olentzerori eskutitza eskura emateko aukera izango dute.

MAITE
arrandegia
Arrain freskoak, egunero

Portuan egunean bertan egositako itsaskia

948 467 385 • 607 973458
La Paz 3 • ALTSASU

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

Arbizu
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

Jose Mari Ganboa Bergera

Padrerenako bankuan,
Arruazuko kaleetan
Ostatuan...
Beti gurekin egongo zara.

Eskerrik asko une hauetan gurekin
egoteagatik.

Padrerenaren etxeak



Eusebio Lazkoz Razkin

II. urteurrena

Gure aldetik joan zinen,
gurekin zaude,
beti jarraituko duzu gurekin.
Maite zaitugu.

Zure emaztea, seme-alabak eta bilobak

Oroigarriak

Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275

Jesus Maria Jaca Maiza

I. urteurrena

Elizkizuna igandean izango da, 22an,
12:00etan, Etxarriko elizan.

Zure emazte Lourdes, zure seme losu eta Ander,
zure ama Maritxu, Reme, Inaxio, Nora eta Udane

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko
11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua
zorion@guaixe.net-era
edo hots egin
948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en doan
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Pisua aldatu. Arbuzun 3 gelako pisua (ganbara eta bajearekin) aldatzen da 4 gelako pisu-etxeagatik. Baldintzak negoziatzeko prest. Kontakturako telefonoa: 653- 72 64 76.

Opatutakoak / galdutakoak

GALDUTAKOAK

Txakurrak bilatzeko koilare beltza. Galdu dut. Garmin markakoa da. Aurkitu duenak, 696 33 66 47 telefonora dei dezala. Eskertuko da.

Ikastaroak

IFESek hainbat ikastaro antolatuta ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>.

Forem Navarra - CCOO ikastaroak.

Informazio gehiago: www.foremnavarra.org.

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/.

Lehiaketak

Euskararen Ginkana. Antolatuta du Kutxa Ekoguneak Euskaltzaleon Topagunearen laguntzarekin. 3.000 € jasoko ditu talde irabazleak. Abenduaren 3tik urtarrilaren 16ra. Informazioa www.euskararenginkana.net webgunean.

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderari erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharra

Odol emaileak. Hilaren 23an Uharteko Arakilen, arratsaldean.

Nobel-Truk ekimena. Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarteak JOKIN ZAITEGI itzulpen sariketa jarri zuen martxan. Haren bidez azken urteetan izendutako azken Literatura Nobel saridunaren lan esanguratsua bat euskaratu da. Beka deialdia baten bidez egiten da. Ekimenak aurrera segitzeko haren laguntzaile egin eta diru-laguntza ematera deitu du AEDK. Informazioa: www.aedelkastea.com. Abenduaren 20ra arte.

Tartalarriendako laguntza. Laguntza ekonomikoak Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daitezke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

CAF-ELHUYAR beka. Zientziaren/teknologiaren eta gizartearen arteko elkarrekin lanak duten proiektuei lagundu nahi die sariketarako. Proiektuen izaera zientifikoa, artistikoa zein soziologikoa izan daitezke, eta arlo zientifikoa eta soziala harremanetan jartzea izan behar du haien muinak. II. urteurrena 31ra arte. Saria 5.000€. Informazioa: www.elhuyar.org.

Haurren erdituak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Etxeko lantxoak - trukea. Informazio gehiago larrezabaldek@inigoarritza.com.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregui klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com.

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanan produktu ekologikoen zuzenean eskuratze gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarritako edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarrik eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arrosa, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezitia, arrautzak, garagarroa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleko sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

JAIOTZAK

- **Olaia Molina Larunbe,** abenduaren 7an Irurtzunen.
- **Mikel Arratibel Lakuntza,** abenduaren 8an Altsasun.
- **Laila Flores Ramos,** abenduaren 9an Arbuzun.
- **Izadi Arratibel Gogorza,** abenduaren 10ean Etxarri Aranatzun.
- **Soumia Hamdi Haddou,** abenduaren 12an Irurtzunen.

EZKONTZAK

- **Leonides Perez Carrera eta Noelia Martin Romero,** abenduaren 13an Altsasun.

HERIOTZAK

- **Maria Otin Sola,** abenduaren 10ean Irurtzunen.
- **Emilia Azpiroz Elso,** abenduaren 11n Lizarragan.
- **Meliton Agirre Bengoetxea,** abenduaren 13an Olaztin.
- **Jose Mari Ganboa Bergera,** abenduaren 13an Arruazun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

ATLETISMOA

SAN SILBESTRERAKO IZENA EMATEA ZABALIK: Abenduaren 31n Altsasuko 35. San Silbestrea jokatu da. Izena ematea

www.dantzalekusakana.com web gunean egin behar da (dohainik). Lasterketan elikagaiak jasoko dira, Elikagai Bankuarendako.

kirola >>

Pilota

Iritsi da Binakakoa

EZKURDIAK ETA ZABALETA BIKOTEA OSATUKO DUTE ETA 2009KO TXAPELDUN XALA ETA LASA ELKARREKIN ARIKO DIRA



Binakakoa. I. jardunaldia

Xala-Zubieta / Urritikotxea-Beroiz (Iarunbatean, 17:30ean, Bilbon. NITRO)
Titin III.a-Merino II.a / Ezkurdia-Zabaleta (igandean, 17:00etan, Eibarren. ETB1).

Martxan da Binakako Pilota Txapelketa. Asteazkenean egin zuten aurkezpena, eta asteburu honetan hasiko da. Txapelketa luzea izanen da. Hasierako ligaxkan 8 bikoteek bi aldiz jokatu beharko dute elkarren kontra eta lau onenak sailkatuko dira finalerdietara. Finalerdietan ere guztiak guztien kontra ariko dira eta bi onenak helduko dira finalera. Finala apirilaren 27an jokatu da, ziuurrenik, Bilbon.

Ezkurdia Zabaletarekin

Hiru pilotari profesional sakandarrak Binakakoan ariko dira. Joseba Ezkurdia da Asperen berritasuna. Aurreko urtean arbizuarra Gonzalez ordezkatuta aritu zen, baina aurten hasieratik ariko da. Egungo txapeldun Jose Javier Zabaleta etxarrendarrarekin osatuko du bikoa. Bikote sakandar petoa. "Zaila zen txapelketan sartzea, Jon Jaunarena ere hor zegoelako, baina niri eman didate aukera eta oso pozik nago. Ea gai garen txapelketa ondo hasteko" adierazizuen arbizuarra. Bikote indar-

tsua osatuko dute biek. Asko eza gutzen dute elkar, afizionatuetatik elkarrekin aritzea askotan tokatu zaielako.

Zubieta eta Xala, 2009koa gogoratzerara

Aitor Zubieta atzelari etxarriarrak aspaldiko laguna izango du bikoa: Yves Salaberri "Xala". Duela lau urte Binakako txapeldunak izan ziren biak, Gonzalez eta Lascuraini 22-14 irabazita. Lagun handiak dira, elkarri primeran ulertzen diote eta sarritan Zubieta bera Xalaren botileroa izan da. "Xala eta biok bikain konektatzen dugu. Oreak eta ilusio handia nabari diot txapelketari. Pilotari berri asko sartu dituzte eta ea nola erantzuten duten. Zalantza askoko txapelketa izango da" adierazi zuen.

Asperen bikoak klasikoak dira. Asegarcek ekarri ditu sorpresa gehienak, Aretxabaleta, Ladis Galarza eta Mikel Urrutikoetxea gazteekin. Lehiaketa hastera doa!

Bikoteak

Aspe: Titin III.a-Merino II.a, Irujo-Barriola, Ezkurdia-Zabaleta eta Xala-Zubieta.

Asegarce: Olaizola II.a-Aretxabaleta, Bengoetxea VI.a-Ladis Galarza, Urrutikoetxea-Beroiz eta Berasaluze II.a-Albisu.

Mendia

Aralar, mendizaleen bilgune

49. MENDIGOIZALE EGUNA OSPATUKO DA IGANDEAN ARALARREN

Gabonen aurreko igandean urtero errepikatu ohi denez, Aralarko Santutegiak igandean Mendigoizale Eguna hartuko du. Mendizaleek oso gogoko dute zita hau, besteak beste hildako mendizaleak oroituz, Nafarroako mendi klubetako gainontzeko mendizaleekin elkartu eta egun polita pasatzen dutelako. 1964.ean urte horretan hildako hirumendizale gogoratzeko ekitaldia egin zen Aralarren eta hortik aurrera urtero errepikatu izan da. Hortaz, aurtengoa mendizaleen festaren 49. edizioa izango da, eta Anaitasuna klubak izango du ekitaldia antolatzen ardura.

Oinez mendira

Mendizale gehienek oinez joko dute Aralarra. Gehienek Uhartea Arakilgo bidea aukeratuko dute, baina Sakanako Mendizaleak taldeak Lakuntzatik abiatzeko deia egin dute, eta egongo da Madotzetik, Lizarrustetik eta Lekunberri aldeetik joko duenik. Behin Aralarren, hildako mendizaleen oroimenezko meza izanen da eta mendizaleek euren mendi materiala bedein-



Igandean mendigoizaleak Aralarren bilduko dira. ARTXIBOA

Egitaraua

8:30ean: Aralarko San Migelera igoera, klub bakoitzak aukeratu duten bidetik abiatuta.

10:45ean: Meza Aralarko Santutegian, Mikel Garziandia kaperauaren eskutik.

11:30ean: Hamaiketako.

13:00etan: Festa bukaera.

* Trikitixa eta panderoaren doinuak festa girotu dute.

Aralarren bi meza

Mikel Goiengeruaren Kofradia-tik adierazi digutenez, bi elizkizun izanen dira igandean Aralarren. Mendigoizaleena 10:45ean izanen da, eta iganderoko ohiko meza, aldiz, 12:30ean.

tzeko aukera izango dute. Segidan hamaiketakoaren txanda izango da, kanta eta dantzen tartea.

Egun polita izaten da Mendigoiz-

zale Eguna. Urte bukaera ospatzeko modua ere bada. Nafarroako Mendi Federazioak Aralarren bilteko gonbita egin du.

Irristaketa

Sakanako irristaketa topaketa Olaztin



Sakanako Mankomunitateak, hainbat talderen laguntzarekin -Olaztiko Sutegi taldea, Altsasuko irristaketa taldea, Urdaingo Aitziber

taldea eta Etxarri Aranazko eta Uhartea Arakilgo guraso elkartek -Sakanako irristaketa topaketa antolatu dute bihar, Iarunbatean,

17:00etan, Olaztiko Erburua kiroldegian. Helburua 4 eta 15 urte arteko Sakanako irristalariak elkartzea da eta ongi pasatzea.

Amaya
Okindegi-gozotegia

ARAIA 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



ALTSASU



OLAZTI

948 468 755



ETXARRI

948 461 660

Txirrindularitza

Pablo Urtasunek txirrindularitzan jarraituko du

TXILEKO VIÑA SANTA CRUZ-MINERA CANDELARIA TALDEAN ARIKO DA

Pablo Urtasun txirrindulari urdiaindarrak badu talde berria: Txileko Viña Santa Cruz-Minera Candelaria talde kontinental profesionala. Nahiz eta taldea Txilekoa izan, bere egoitza Murtzian izanen du.

Pablo Urtasunek Euskaltel-Euskadin eman ditu azken urteak. Talde laranja desagertzekoan hainbat eskaintza izan ditu eta azkenean Txileko taldearena

onartu du. 28 urteko txirrindulariak argi zuen txirrindularitzan jarraitu nahizuela. "Ilusioarekin nago. Nahiz eta talde kontinentala izan eta alde horretatik batzuk pentsatu atzera pausua dela, proiektu berri honek ilusioa piztu dit. Izan ere, txirrindularitzan aktiboan jarraitzea ahalbideratuko dit, egun nahiko konplikatu dena, talde faltagatik" adierazi du. Pablo Urtasunek espero du bere



Urtasun, garaipena ospatzen. Gainontzeko sakandarrek oraindik ez dute talderik.

onena ematea, taldeak beragan izan duen konfiantza eskertzeko, eta proiektu berriarekin batera "handitzea".

Pablo Urtasunek bi garaipen ditu Espainiako Itzulian. Bitan aritu da Tourrean, bitan Espainia-

ko Itzulian eta batean Italiako Giroan. Urtasun talde txiletarren erreferenteetako bat izango da. Taldeak egoitza Murtzian izanen du eta Europako egutegian ariko da, bereziki Espainiako eta Frantziako Estatueta eta Portugalen.

Xakea

Sakanako Xake Txapelketa Mikel Ortegarendako

LEHEN SAKANDARRA CESAR RAZKIN IZAN ZEN ETA 14 URTEZ AZPIKO ONENA MANEX REGILLAGA

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta, Kirol Asteburu ospatu da asteburu honetan. Ostiralean kirol balioen inguruko hitzaldia eskaini zuen Luix Mari Zulaikak Altsasuko Iortia Kultur Gunean. *Nire seme-alabak kirola egitea nahi dut, baina... zenbat? nola? zertarako?* galderari erantzuna ematen saiatu zen Zulaika.

Larunbatean xakearen txanda izan zen. Data hauetan ohikoa denez, Sakanako Xake Txapelketa antolatu zuen Mank-ek, Sakanako Zaldi Beltza Xake Taldearen laguntzarekin eta Sakana Fundazioaren eta Ziordiko Udalaren babesarekin.



Xakelariak egun guztiko lana izan zuten Ziordian. UTZITAKOIA

Aurten Ziordiko liburutegian jokatu zen txapelketa, aldi berean ELO 2000 puntutik beherako Nafarroako Txapelketa izan zena.

29 xakelarien artean gazteak nagusi

Txapelketa 20 minutuko 8 partidarako jokatu zen, 2 kategoriatan, hel-

duen eta gazteen mailan. 29 xakelari lehiatu ziren, horietatik 8 sakandarrak, eta jokalaria bakoitza 8 erronda egin behar izan zituen. Txapeldun absolutua Mikel Ortega izan zen, Orvina klubeko 14 urteko gaztea, bere klubeko kide Luis David Almeidaren aurretik. Aritz Idiazabal (Mikel Gurea) hirugarrena izan zen. Aipatzekoa da lehen hiru sailkatuen gaztetasuna, hirurak 18 urtez azpikoak baitziren. Sakandar onena Cesar Razkin etxarriarra izan zen. Bestalde, 14 urtez azpiko kategorian Manex Regillaga gailendu zen, Alejandro Galvanen eta Martin Pascualen aurretik.

Herri kirolak

Sakanako Herri Kirol Eguna Iturmendin

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak herri kirolak babesteko apustu sendoa egin zuen 2004an: Sakanako Aizkora eskola eta Sakanako Harri-jasotze eskola sortzea. Izan ere, etxean aizkolaririk edo harri-jasotzailerik ez zutenak oso zaila zuen kirol horietan aritzea, eta arazoari irtenbidea emateko eta herri kirolei bultzada emateko antolatu zituen Mank-ek aipatu eskolak.

Emaiza pozgarria da, ordutik asko izan baitira eskoletatik atera diren aizkolarik eta harri-jasotzaileak. Abenduro aipatu eskolako kirolarien lana erakusteko Sakanako Herri Kirol Eguna antolatzen hasi ziren eta aurten Iturmendiko frontoiak hartu zuen egun polit hori.

Iturmendik emandakoa

Aizkoran, enborra bertikalean erdibitzeko lehian Juanjo López nagusitu zitzaion Sakanako eskolan trebatutako Arkaitz Jauregiri. Bestalde, Joan Flores eta Angel Eraso



Floren Nazabalek, bere aita Juan Mari eta Juanito Erdozia etxarriarrak gidatzen dute Sakanako Aizkolarik Eskola. 10 urtetik aurrera hasi daitezke eskolan, eta egun 15 gaztetxo ari dira Nazabaldarren bordan trebatzen. Sakanako Harri-jasotze eskolak Irurtzunen du egoitza. Mikel Lasarte izurdiagarra eta eskolan trebatutako Xabier Igoa dira monitorea. Egun, 8 urtetik 32 urtera bitarteko 7 pertsona daude eskolak jasotzen.

gailenduz itzaien Josu eta Mikel Agirrerri, eta Eloy Corchero eta Arkaitz Jauregi gailendu ziren Goizeder Beltza-Iban Resano eta Juanito Erdozia-Juanjo Erdoziaren gainetik. Bestalde, Jon Erdozia eta Ander eta Josu Jakak, eskolako txikienak, erakustaldia egin zuten eta hiru belaunaldia

di lanean ikusteko aukera izan zen: Juanito, Juanjo eta Jon Erdozia.

Alvaro Zugarrondok, Xabier Igoa eta Mikel Lasartek, 80 kiloko esferikoarekin, 100 kiloko kubikoarekin eta 125 kiloko angeluzuzenarekin aritu ziren harri-jasotzean. Bitartean, Itziar Nuñezek eta Ana Lope-

zek trontzarekin erakustaldia egin zuten eta Andra Mari ikastolako ikasleen arteko lehian Joseba Galarza eta Urtzi Nazabal Adrian Joao eta Xabier Basabe baina azkarra goak izan ziren. Bukatzeko, Mikel Lasartek motozerrarekin onddo bat egin zuen.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

17. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 2 - MUTILBERA 1
Lehen zatian Lagun Arteak gailendu zen eta atsedendira 2 goleko errentarekin joan ziren lakuntzarrek, Unai Bakaikoak eta Ferminek sartutako golei esker. Nahiz eta bigarren zatian Mutilberak dominatu, 79. minutuan Rojasek sartutako golarekin konformatu behar izan ziren Mutiloakoak. Garaipen polita lortu zuten lakuntzarrek.

Sailkapena >>

1. San Juan	41 p
11. Lagun Arteak	22 p

Asteburuko jardunaldia

OSASUNA B - LAGUN ARTEA
(Larunbatean, 18:00etan, Taxoaren)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

13. JARDUNALDIA

SAN JORGE 2 - ALTSASU 2
ETXARRI ARANATZ 2 - BETI KOZKOR 4
LAGUN ARTEA B 3 - BERRIOZAR 3
San Jorgerekin bina berdindu eta gero, 3. postura jaitzi da Altsasu. Lehen zatian San Jorgek dominatu zuen eta 2-0 aurreratu ziren iruindarrak. Nahiz eta 2. zatian San Jorgek dominatzen jarraitu, 63. minutuan Darlinek Altsasuren lehen gola sartu zuen, eta partida bukatzeaz zegoela Inakik berdintzea lortu zuen. Etxarri Aranatzek Beti Kozkor liderra hartu zuen. Lehen zatian ongi aritu ziren Lekunberrikoak eta atsedendira 4 goleko errentarekin joan ziren, etxarriarek egindako akatsengatik bereziki. 2. zatian Etxarrik dominatu zuen eta 2 gol sartu zituzten, baina markagailua ez zen gehiago mugitu.

Eta Lakuntzan jokaturako lehia estuan, Lagun Arteak B-k eta Berriozarrek hiruna berdindu zuten, edozeinek irabazi ahal izan zuten lehian.

Sailkapena >>

1. Beti Kozkor	29 p
3. Altsasu	23 p
9. Lagun Arteak B	17 p
15. Etxarri Aranatz	10 p

Asteburuko jardunaldia

ALTSASU - UNIVERSIDAD DE NAVARRA
(Atzeratuta)
DONEZTEBE - ETXARRI ARANATZ
(Larunbatean, 15:30ean, Donezteben)
LAGUN ARTEA B - VALLE DE EGUES
(Igandean, 12:30ean, Berriozarren)

Futbola



SAKANAKO FUTBOL 8

Lehen itzuliari agur

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta, igandean Kimuen Futbol 8 Topaketako 8. jardunaldia jokatu da, joaneko itzuliko azken jardunaldia. Altsasuko Dantzalekuk hartuko ditu jokoan dauden partidak.

8. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Dantzalekuk

11:30ean: Dantzaleku - Lagun Arteak

12:30ean: Urdiain - Etxarri Aranatz

11:30ean: Tipi Tapa - Txartel

12:30ean: Kaixo - Sayas

Atsedean: Arbizu K.T.

Atletismoa

Isidro Asurabarrena
6.a I. Libre lasterketan

Donostiak I. Libre lasterketa hartu zuen larunbat arratsaldean, 6 km-ko lasterketa herrikoia. Epaiketen gastuei aurre egiteko elkartasun krosa zen larunbatekoa. 250 korrikalari iritsi ziren helmugara eta Aitor Etxeberria (18:30) eta Ana Fernandez de Lezea (23:56) izan ziren azkarrenak. Isidro Asurabarrena altsasuarrak lan bikaina egin zuen eta seigarrena iritsi zen helmugara (20:51).



Isidro Asurabarrena.

Areto futbola

Puntu bakarrak
zapora gutxi du
Magnarendako

Ohorezko maila. 15. jardunaldia:

Peñiscola 2 - Magna Nafarroa Xota 2



Dani Saldise lehia. XOTA

Castellonen jokatu zuen Magna Nafarroa Xotak, Peñiscolaren kontra. Bina berdindu zuten baina Irurtzungo taldeak gehiago merezi izan zuen. Hala uste du, behintzat, Imanol Arregi entrenatzaileak. "Nire jokalariek egindako partidarekin kontentu nago. Berdindu dugu, baina aukerak eta bereziki bigarren zatian egindako jokoak kontuan hartuta, zerbait gehiago merezi izan dugu" adierazi zuen Irurtzungo teknikariak. Peñiscola izan zen markagailuan aurreratu zena. Rafa Usinek berdinketaren gola sartu zuen, baina pozak gutxi iraun zuen hurrengo jokaldian Peñiscola 2-1 aurreratu zelako. Magnak hainbat jokaldi argi huts egin zituen, baina bukaeran, Eserverrik berdintzea lortu zuen. Izandako gol aukerengatik Magnak irabaztea merezi izan zuen.

HURRENGOA, JUMILLA

Inter Movistar da liderra (40 puntu). El Pozo Murcia eta Barcelona 2.a eta 3.a dira (32 puntu). Magna Nafarroa Xota 6.a da (22 puntu). Ostiralean 20 punturekin sailkapenean 7.a den eta arerio zuzena den Montesinos Jumillaren kontra jokatu du Magna Nafarroak, 21:00etan, Andaluzian.

Pala



Finalista guztiak talde argazkia atera zuten finalen ondoren. UTZITAKOA

Guztiak txapelak

LARUNBATEAN SAKANAKO EMAKUMEEN VIII. PALA TXAPELKETAKO FINALAK JOKATU ZIREN. ELORRI-SAIOA, AROA-OIHANE, ARIANE-UXUE, UXUE-ANDREA ETA YANIRA-REBEKA NAGUSITU ZIREN

Finalak

Kimuak:

Maitena-Elai 12 / Elorri-Saioa 18

Haurrak:

Dinora-Ainhoa 15 / Oihane-Aroa 25

Kadeteak:

Irati-Ane 25 / Ariane-Uxue 19

Gazteak:

Uxue-Andrea 25 / Andrea-Irati L. 19

Helduak:

Amaia-Saioa 20 / Yanira-Rebeka 30

Lastailaren bukaeran hasi zen Sakanako Emakumeen VIII. Pala Txapelketa eta larunbatean des-

peditu zen, Etxarri Aranazko pilotalekuan jokatu zuten finalerako. Txapelketa Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu du, Etxarriko Nesken Pala Eskolarekin. Aste hauetan barna guztira 26 bikote lehiatu dira, 5 kategoriatan: kimuak, haurrak, kadeteak, gazteak eta helduak.

Kimuen, kadeteen, gazteen eta helduen kategorian 5 jardunaldiko hasierako ligaxka jokatu ondo-

ren, finalerdien eta finalen txanda iritsi zen, eta haurren kategorian, aldiz, 6 jardunaldiko ligaxka jokatu zen eta bi onenak sailkatu ziren finalerako. Finaleko partidak ikusgarriak izan ziren, Sakanako emakumeen palak duen osasunaren seinale. Helduen mailan Saioa eta Yanira Aristorena ahizpak elkarren kontra lehiatu ziren eta Yanirak lortu zuen txapela janztea. Txapelketa bikaina egin ondoren, zorionak guztiei!

Gimnasia erritmikoa

Iskizakoak pozik itzuli dira Granadatik

ESPAINIAKO GIMNASIA ERRITMIKOKO TALDE TXAPELKETAN ARITU DIRA SAKANDARRAK

Asteburuan Espainiako Gimnasia Erritmikoko talde txapelketa jokatu da Granadan. Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko taldea bertan lehiatu da, bi talderekin: kimuak (5 pilotekin) eta juniorrak (5 uztaiekin).

Iskizakoak Nafarroako beste hiru klubeko gimnastekin batera joan ziren Granadara, autobusez. Ostegunean txapelketako egoitzan entrenatzen hasteko aukera izan zuten.

Amaia Olmo eta Cristina Remolina entrenatzaileen aginduetara aritu dira Iskizakoak. Kimuek lehen pasea ostiral goizean egin zuten eta juniorrek arratsaldean. Ariketa ongi defendatu zuten bi taldeek, baina akatsen bat edo beste egin zuten. Aldiz, larunbateko saioan, oso ongi aritu ziren. Bukarera, kimuak 27.ak sailkatu ziren eta juniorrak 34.ak.

"Oso pozik gaude, egindako lana tapiz gainean ikusi delako. Primeran aritu dira, eta gimnastek Sakanan lortzen ari garen maila altua erakutsi dute. Eman diguten notarekin ez gaude horren pozik, baina gure lanarekin kontentu egotea garrantzitsuena dela uste dugu" adierazi du Olmos entrenatzaileak.

Beste txapelketetan ere ongi

Urritik abendura bitartean ia asteburu guztietan torneoa izan dituzte Iskizakoek. Donostian, Gastei-



Iskiza taldeko junior mailakoak, Amaia Olmo eta Cristina Remolina entrenatzaileekin. UTZITAKOA

Larunbatean
erakustaldia Altsasun

Bihar, larunbatean, Iskiza Sakana gimnasia erritmiko taldeak Gabonetako erakustaldia egingo du Altsasuko Burunda pilotalekuan, 11:30ean. Euren lana ikustera gerturatzeko gonbitea egin dute.

Iskizako gimnastak
Espainiako txapelketan

Kimuak: Irati Begiristain, Eider Goikoetxea, Eneritz Regil, Olatz Gil eta Argider Orabengoa.

Juniorrak: Alaitz Solozabal, Saioa Iraizoz, Cristina Nuncio, Ainhoa Imaz eta Olaia Agirre.



Iskiza taldeko kimuak pilotekin aritu ziren. UTZITAKOA

zen, Bilbon, Logroñon, Eibarren, Iruñean... lehiatu dira, eta emaitza onak lortu dituzte, kimuek bereziki. Urrezko eta zilarrezko dominak ekarri dituzte. Euskalgymtxa-

Sakandarrak
II. Napar Palako
finalerdietan

Yanira Aristorena, Saioa Aristorena eta Olaia Eizagirre finalerako pasako dira igandean irabaziz gero

Nafarroako elite mailako Emakumeen II. Napar Pala Txapelketako finalerdiak jokatu dira igandean Lekunberrin eta Larragan. Zorionez, txapelketan lehiatzen ari diren hiru etxarriarrak, Yanira Aristorena (elitea), Saioa Aristorena (lehen maila) eta Olaia Eizagirre (lehen maila), aurrera egin dute eta finalerdietarako sailkatu dira. Ea abenduaren 29ko Labriteko finalerako sailkatzen diren.

II. Napar Palako
finalerdiak

Igandean, 11:30ean
Lekunberrin:

Lehen maila: Olaia Eizagirre-Maidier Huizi / Eli Pagola-Edurne Argain

Eliteak: Rebeka Contin-Susana Muneta / Itsaso Pradera-Leire Etxaniz

Larragan:

Lehen maila: Maddi Mendizabal-Miren Goikoetxea / Saioa Aristorena-Amaia Ariztegi

Eliteak: Amaia Irazustabarrena-Ariane Arrieta / Yanira Aristorena-Maidier Mendizabal

kultura >>

Bertso-afaria Irurtzenen

Bihar, 21:30ean Irurtzungo Iratxo elkarteak. Kafea hartzera eta bertsoak entzutea joan daiteke

Aizpea euskara taldeak antolatu duen Euskal Ekitaldien barruan, bihar bertsoafaria izanen da. Erika Lagoma eta Uxue Alberdi bertsolariak izanen dira bertsoetan. Afarirako zeuden 80 tokiak beteta daude. Hala ere, Aizpea euskara taldetik jakinarazi dute bertsozale guztiak gonbidatuak daudela. Kafer agertu eta bertso-aldiaz gozatzeko aukera izanen baita.



Arretxerekin hizketan

19 kamera liburua irakurri ondoren, asteartean elkartu zen Etxarri Aranazko Irakurketa Taldea. Aingeru Mikeok gidatutako saioan liburuaren idazlea izan zuten bisitan, Jon Arretxe bera. Harekin liburuaren inguruko mamiaz eta bestelako hizketatutako ziren. Hurrengo hitzordua jarri da taldeak: martxoaren 13a. Ordurako Andu Lertundiren *Zoaz infernura, laztana* liburua irakurria izanen dute.

Barandiaran Erlean

Euskaltzaindiak gaur aurkeztu du erakundeak berak argitaratzen duen eta Bernardo Atxaga euskaltzainak zuzentzen duen Erlea aldizkariaren zenbaki berria, zazpigarrena. Erbestek eta gatazkak, eta eurek eragiten dituzten tristeziak eta minak dira gaietako bat. Parte hartu duten idazleen artean Alberto Barandiaran altsasuarra dago.

Sakandarrak bertsolariaren tenpluan



Amets Arzallusek irabazi du Bertsolari Txapelketa Nagusia

Barakaldoko BEC-ek hartu zuten igandean Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala. 13.500 bertsozalek bete zuten erakina. 81 sakandar hartuta bi autobus abiatu ziren 7:30ean Bilborantz, eta beste hainbat haien ibilgailuetan joan ziren. Ibar guztiko herrietako bertsozalek gozatu ahal izan zuten finala deriaz. Amets Arzallus txapeladuna eta gainerako zazpikotearen lana txalotu zuten.

Aretora sartu eta puntual hasi zen finala. Goizeko saioan 14:45era arte luzatu ziren. Bazkaltzeko batzuk BEC-en bertan egokitutako espazioa baliatu zuten. Beste batzuk aretotik atera egin ziren eta izan zen Bertsozale Elkartek eskainitako bazkarian gelditu zenik. 16:15ean, ekin zioten berriro bertsolari lanari eta 20:00etarako jakin zen Arzallusek jantzi-ko zuela txapela. Bertso goseak aseta, sakandarrak etxerako bidean jarri ziren. Sakanan 23:00etan zeuden.

Nazabal zuzen-zuzenean




Brotzak, paletak, eskuak, zapiak... Perspektiba hartzeak, joan etorriak... Itziar Nazabal aste honetan Iortia kultur gunean ari da koadro bat margotzen, bere erakusketaren beste elementu bat bihurtuz. Igandera bitartean, 20:00etatik 22:00etara ariko da, Iortian. Nazabalek azaldu zigunez jendaurrean aritzea erronka bikotza da. Batetik, bere sortze lana jendaurrean agerian utziko duelako. Biluzte hori, gainera, erakusketako koadroen sortze prozesuari buruzko oharrekin osagarria da.

Erronka ere bada, bere sortze prozesuaren hasieran dagoen lehertzea ez duelako berakegin eta, neurri batean bada ere, ez duela bideratu. Testuren lehertze hori aurreko ostegunean margolanaren sortze prozesu parte-hartzailean izan ziren 15 pertsonen osatu zuten. Nazabal huragai hartuta margolana osatzen hasi zen. Orain arte biluzien seriea margotzeko prozesua aldatuta lanean ari da margolaria, testuren gainean pinturarekin ari baita koadroa osatzen. Igandera arte, Iortian.

bazterretik

Jose Luis Asensio



Jean-Jacques Sempé

Sempé izena entzutean behar bada ez duzue jakingo nori buruz ari naizen, baina munduko komikigilerik famatuenetarikoa da eta ziur nago bere lana ezaguna duzuela. Bere komikirik famatuena 1950. hamarkadan (1959) marraztu zuen: *Le petit Nicolas* edo *Nikolas Txikia* euskaraz.

Burdeos 1932. urtean jaioa, eskolan arrakastarik izan gabe, ezin izan zituen postaz erbitzuan, bankuan edo tren zerbitzutan lan egiteko azterketak pasa. Azkenean hortzak garbitzeko pasta atez ate edo txirindula gainean ardoa salduz ibili zen 1950. urtean soldaduska egitera bere burua aurkeztu zuen arte. Bere hitzetan, militarrek ziren lana eta ohea eskaini ahal zioten bakarrak bere lanbideetarako gaitasun falta zela eta. Zenbait arazo izan ondoren behin baino gehiagotan guardian zegoen bitartean marrazten egoteagatik, handik ere bota egin zuten eta Parisera joan zen bizitzera. Parisera joan zenetik, beti bizi izan da Saint-Germain-des-Prés auzo ezagunean. Gutxinaka arrakasta biltzen joan zen bere lehenengolanean eta 1952. urtean Carrizey egile berriendako saria irabazi zuen. Aquarelaz eginiko margolanak egiten zituen, hitzik erabili gabeko marrazki komikoak. Bere mezua zuzenean irakurlearengana arazo-

rik gabe iristea lortzen zuen. Naiz eta bere marrazkiak oso sinpleak izan, gauzak adierazteko erraztasun ikaragarria erakutsi zuen bere lanetan eta horregatik izan du beti arrakasta.

Saria jaso ondoren, aldizkari ezberdinetan bere lanak agertzen joan ziren, ala nola *Punch*, *Paris-Match*, *Cristal*, *L'Express*, *Triunfo* edo *Die Woche*. Marrazkiez gain, *New Yorker* aldizkariarendako azalak ere marraztu izan ditu. Poesia liburukak eta guzti apaindu ditu bere ibilaldi artistikoan zehar.

Aurreko zutabearen Asterix eta Obelix-i buruz aritu ginen eta oraingoan erenolabaiteko erlazioadugu Asterix-ekin. 1959. urtean, René Goscinny (Asterix-en gidolaria eta aita) ezagutu eta *Le petit Nicolas* komikia marraztu zuen Sempé-k Goscinnyren gidoiarekin. Sekulako arrakasta lortu zuten berehalakoan. Bere bibliografia oso zabala da, ezin laburbildu zerrenda batean. Oraindik erlanean jarraitzen du eta aurretik argitaratu du *Le petit Nicolas* en azkeneko albuma. Nikolas Txikiari buruz ehun liburu inguru izanditu argitaratuta eta telebistan marrazki bizidun saio bat eta pelikulak ere egin izan dituzte. Olentzerori eska diezaiokegu azkeneko Nikolasen komikia aurtenean Sempé-k duen ilustrazio bildumetako bat edo beste, guztiak baitira paregabeak.

"Film on, eder eta ezberdina"

EMAK BAKIA BAITA

ABENDUAK 26 OSTEGUNA
ARRATSALDEKO 20:00 ETAN
IORTIA KULTUR GUNEAN

Mank

Mendeurrenean, Verdiren omenez kantuan

Igandean, 19:30ean Etxarri Aranazko elizan

Etxarri Aranazko abesbatzaren aurtengo eguberriko kontzertuko protagonista Giuseppe Verdi konposatzailea italiarra da. Lastailaren 10ean 200 urte bete ziren sortzailea jaio zela eta efemeridea gogoan hartuta Verdiren obrekin osatutako programa prestatu du etzirako Alicia Armendarizek zuzentzen duen abesbatzak.

Emanaldiaren aurreneko zatian Verdik sortutako *Pezzi sacri* erlijio



zikloko pieza pare bat kantatuko du abesbatzak, organo doinuekin lagundua. Bigarren zatian Verdiren operen txanda etorriko da. Lau operetako bost pasarte aukeratu ditu abesbatzak, pianoak lagunduta. Maria Jesus Iribarren izanen da bi instrumentuak joko dituen.

Egitaraua

- 1. zatia.** Musika sakroa. *Stabat mater dolorosa. Te deum.*
- 2. zatia.** Opera koroak. *Nabucco: Va pensiero sull'elli dorate. Il trovatore: Vedi le fosche notturne spoglie. La traviata: Di Madride noi siamo mattadori. Noi siamo zingarelle. Aida: Gloria all'Egitto.*

Eguberri giroko kontzertua

Larunbatean, 20:30ean, Altsasuko elizan

Erkudengo Ama abesbatzak eguberrietako kontzertua eskainiko du bihar, Enrike Zelaia akordeoilariaren eta Josetxo Lumberras perkusio-jolearen laguntzaz. Haiek kontzertuaren bigarren zatian ariko dira. Emanaldi hori mimoz prestatu du abesbatzak eta orain arte Altsasun kantatu ez dituen abesti eskainiko ditu: *Egizu lo* (Jorge Riezu) eta *El cant dels ocells* (Kataluniako eguberri kantua). Aurreneko bi kantuak ez bes-



te guztiak eguberri abestiak dira. Erkudengo Ama abesbatzak, bestalde, haiekin batzeko deia luzatu diete gizonezkoiei. Astelehenero eta ostegunero, 22:00etan, entseatzeko du Iortia kultur gune-

Egitaraua

- Somewhere*
Swing low
Lua, lua
El cant dels ocells
Egizu lo
O eguberri gaua
Noche de paz
El pequeño tamborilero
Festejo de navidad
Mesias sarritan
Gaur da
Agur Jesus Maria Jose
Hator, hator
Agur jaunak

an. Kantu zaleek ateak zabalik dituzte.

Asensio Iruñean sarituta



Iruñeko Udalak astelehenean banatu zituen XXIV. egile berriendako literatura lehiaketako sariak. Narrazio laburren atalean 16 lan aurkeztu ziren eta epaimahaiak lehen saria Jose Luis Asensio Igoari eman dio (2.500 euro). *Ixa Asap* izenburuko lana aurkeztu du lehiaketara etxarriarrak. Epaimahaiakideen iritziz Asensioren lana "umore ukituko kontakizun bizi eta dinamikoa da. Hizkuntza eraginkorra darabil, ia zinematografikoa".

Informatika denda batean lan egiten duen emakume gazte baten bizitzako egun batzuk kontatzen ditu Asensiok. Bere egunerokotasuneko aspektuek markatutako kontakizuna da, erlazioa duen per-

tsonek, kale egindako maitasun istorioak eta arrakasta izan duten beste batzuk nahasten dira kontakizunean.

Etxarriarrak azaldu digunez, txikitatik izan du idazteko gogo (Guaixen komikien inguruan idazten du). Unibertsitatean *Hipokresia* izenburuko lan batekin ere saritua izan zen. Eta bere buruari noizbait eleberri bat egiteko erronka jarri dio.

Aipamena

Epaimahaiak ere lau aipamen berezi eman zituen eta haietako bat Izaskun Etxeberria Zufiaurrendako izan zen. Altsasuarrak *Indaba txuriak galeperrekin* idazlana aurkeztu zuen lehiaketara.

Bilaketa filmiko bat

Emak bakia filma, ostegunean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Doan, gonbitea jaso

Altsasuko Udalak eta Sakana Mankomunitateak, *Euskarra sorkuntzari, sorkuntza euskarari* izeneko programaren barruan, *Emak bakia* baita filma ikusteko gonbitea luzatu dute. Oskar Alegria zuzendari iruinda-



rraren lan saritua da pantailaratu dena. Zinta horretan egileak berak abiatutako bilaketa baten istorioa kontatzen du.

Man Rayren 1926ko film batean, *Emak Bakia*, Miarrizetik gertu dagoen izen bereko etxe baten 3 plano agertzen dira. Oinarri horrekin Alegria etxe horren bila abiatzen da.

Ilustratza

Gaur 17:00etan Altsasuko Iortian

Yolanda Arrieta idazlea eta Aina Azpiazu ilustratzailea gaur Altsasuko Iortia kultur gunean izanen dira. Eta haiekin batera 6 eta 10 urte bitarteko 25 haur. Bi sortzaileek txikiei album ilustratu baten nondik norakoak azalduko dizkiete; testua eta irudia nola uztartu. Akaberan ilustratutako lana etxera eramateko aukera izanen dute. Ekimena Mankomunitateko Euskarra Zerbitzuak antolatu du, Etxepare sariaren egitasmoaren barruan.

webgunean sartu eta sarrerak erosi inolako kostu gehigarrik gabel
iortiakultura.com

La campaña que derrocó a Pinochet
NO
Nominado OSCAR 2013
OSTIRALA 20 21:45 IGANDEA 22 20:00

LA MIRADA DEL AMOR
LA HISTORIA DE UN PUEBLO SUPERVIVIENTE
OSTIRALA 20 22:00 IGANDEA 22 20:10

5€
5€
iortiakultura.com

Guaixe

Sakanaz sarean

TOKIKOM

Egin zaituzte komunitateko Kide

Behin izena emanda, edozer esan al dezaket?

Ez, noski. Gogoratu arau simple hauek:

- **BAT.** Guaixe.net-en parte hartzeko **erregistratu beharra**

dago.

- **BI.** Irainak ez ditugu onartuko. Halakoak baleude, guaixe.net-ek kentzeko

eskubidea dauka.

- **HIRU.** Testua euskaraz idatzi behar da. Bestela, guaixe.net-ek kendu egingo du.

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 86%	euria: 8%	euria: 15%	euria: 8%	euria: 40%	euria: 98%	euria: 68%
Min: 4 Max: 6	Min: -3 Max: 7	Min: 1 Max: 9	Min: 3 Max: 10	Min: 5 Max: 9	Min: 5 Max: 8	Min: 3 Max: 11

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	13.5	-3.8	11.7
Altsasu	11.5	-0.2	8.9
Aralar	11.8	0	13.1
Urbasa	9	-6	10.5

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
17	25	1	8

Acrylicolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Abenduko

bazkide zozketa

ABENDUKO SARIAK:

1- LIBURU LOTEA+EKAINBERRIRAKO 2 SARRERA+LACTURALE INTERPRETAZIO ZENTRORAKO 2 GONBIDAPEN+MAGNA NAVARRA IKUSTEKO 2 SARRERA

2-LIBURU LOTEA+LACTURALE INTERPRETAZIO ZENTRORAKO 2 GONBIDAPEN+MAGNA

NAVARRA IKUSTEKO 2 SARRERA

3- LIBURU LOTEA+LACTURALE INTERPRETAZIO ZENTRORAKO 2 GONBIDAPEN+MAGNA NAVARRA IKUSTEKO 2 SARRERA

4- LIBURU LOTEA+LACTURALE INTERPRETAZIO ZENTRORAKO 2 GONBIDAPEN+MAGNA NAVARRA IKUSTEKO 2 SARRERA

>> 11

galdera

Ainara Eskudero

Kaxeraz.com

Testua: Maialen Huarte Arano



Zorionak eta urte berri on!

guaixekomunikazioa.blogspot.com.es

- 1. Zer da kaxeraz.com?**
 Jaio berria den proiektua. Interneteko ataria da. Eskuz egindako panpinak daude ikusgai eta salgai.
- 2. Nor dira Amaia, Lur, Sara, Maritxu eta Ane?**
 Sortu ditugun panpinak. Baserritarrez jantziak, kaxeraz. Bakoitza bakarra, denak ezberdinak eta bereziak guztiak. Amaia da ameslariena, Lur ausartena, Sara irudimentsuena, Maritxu zentzudunena eta Anesentikorrena. Bost lagun, bost panpin agitz dotore. Zehaztasun handiz eginak, maitasun gehiagorekin landuak.
- 3. Kaxeraz.com atarian daude ikusgai. Zein da helburua?**
 Euskal jantziari dagokion garrantzia ematea. Guk panpinetan irudikatu dugu hori, modu bisuala baita oso. Boskotearen bitartez islatu nahi ditugu euskal jantzien edertasuna eta nolakotasuna. Panpin bakoitza bat eta bakarra da; begien zein ilearen kolorea aldatzen da, abarkena, gonaren ohialaren estapatua, zapiarena, mandarrarena...
- 4. Nolatan jarri dira Ihabarko psikologo bat eta Lesakako kimikaria josten?**
 Aldizkari bateko portadak eraman gaitu egitasmo berri hau sortzera. Azalean eguberrietako irudia zetoren: neskatoak euskal jantziekin soinean. Baina, errespetu gutxiarekin jantzi horiengan. Gona eta atorra eramaten zuten askok, baina kirol egiteko zapatilak oinetan. Iruditu zitzaigun euskal jantziari modu horretan ez zaiola berezkoa duen eta beharko lukeen errespetua zor. Hortaz, euskal jantziari buruzko informazioa bilatu, datuetan mur-

gildu eta panpinak jantzi ditugu; mimo eta zintzotasun handiarekin.

- 5. Noiz sortu duzue lehen panpina?**
 Josten ez genekien ideia hau sortu zitzaigunean. Hortaz, asko ikasi dugu! Abuztuaren sortu zen lehen panpina, proba askoren ondoren, polit geratu zen lehena. Asmoa da garrantzia ematea jantziari, baina, jantzia egin aurretik panpinaren gorputza ere egin beharra dago, izan ere, hasieratik eta bukatzeraino dira eskuz eginak.
- 6. Zenbat denbora behar duzue panpina hasi eta bukatzeko?**
 Ez dugu panpina hasi eta bukatzen, ez gara fabrika kate batean bezala aritzen. Egia da bakoitza sortzen, josten, atontzen ordu asko ematen ditugula.
- 7. Zergatik izen horiek?**
 Euskal izen zaharrak begiratzeko arituz eta askoren artean hauek jarri dizkiegu. Maritxuak familia guztietan daude; Sara Iparraldeari begira aukeratutako izena da; Amaia, Amaia eta euskaldunak izeneko liburua eragatik; Ane, Ane Albusuren Euskal jantzien inguruko liburuan oinarritu garelako eta Lur izenik modernoena da eta lurrari lotutako proiektua delako hautatu genuen. Gainera, guztiak desberdintzeko abizenak ere badituzte: panpin hitza Munduko hizkuntzatan adierazitako abizenak dituzte.

- 8. Zein materiale erabiltzen duzue?**
 Jantziak oihalak kotoizkoak dira eta artilearekin egiten ditugu zenbait xal. Zuntz naturalak erabiltzen ditugugainerakoan. Gorputzak kotoiarekin eta harearekin betetzen ditugu, pisua har dezaten.
- 9. Zer nolako harrera egin diete?**
 Ez zuen inork halako egitasmorik espero gundik baina, harrera ona egin diete. Politak direla esaten digute eta hori da lortu nahi genuen erantzuna: panpina sortzeak duen lanari erreparatzea baino, lehen sentazioa, panpinek duten itxurarekin loturikoa izatea, eta hortaz gu oso pozik gaude.
- 10. Non dituzue salgai?**
 Webgunean daude panpin asko ikusgai. Bertatik egin daiteke aukera. Duden panpin sortatik aukeraketa egin eta modu seguruan ordaintzeko aukera eskaintzen dugu. Bost egunen bueltan etxean izan ditzake eskatzen duenak. Panpina bakoitza kutxa berezi batean iritsiko da doan tokira joanda ere. Dena dela, saltoki batzuetan ere baditugu ikusgai: Iruñean zenbait dendatan, Donostian eta baita Iparraldean ere.
- 11. Egitasmoa zabaltzeko asmorik baduzue?**
 Orain gure proiektua lau haizetara zabaltzea da gure nahia, baina ideia berriak baditugu. Esaterako, mutilendako dauden euskal jantziak islatu nahi ditugu.